

Jakako foruaren beste historia bat (Beste irakurketa bat eta berrinterpretazio-saiakera)¹

Ana M^a BARRERO GARCÍA

Ikerlari Zientifikoa

Aurkibidea

I. PLANTEAMENDUA. II. JAKAKO DOKUMENTU FORALAK. 1. Antso Ramiritzen forua. 1.1. Haren tradizio idatzia. 1.2. Haren kritika diplomatikoa. 2. Ramiro II.aren berrespena. 3. Alfontso II.aren emakida. 4. Kritika diplomatikotik eratorritako ondorioak. III. JAKAKO FORUAREN HEDAPENA. 1. Testigantza dokumentalak. 2. Jakako foruarekin lotutako testuen analisi konparatiboa. 3. Testuen arteko konkordantzien finkapena. 4. Konkordantzia-taularen emaitzak. 5. Konkordantzien testu-analisia. 5.1. Elkarrekikotasun handiko kasuak. 5.2. Jakako foruarekiko eta Aragoiko foruekiko kasu komunak. 5.3. Jakako foruarekiko eta Nafarroako herri eta hirietako foruekiko kasu komunak. 5.4. Jakako foruan jasota ez dauden Nafarroako eta Aragoiko foruekiko kasu komunak. 5.5. Aragoiko foruekiko kasu komunak. IV. JAKAKO ZUZENBIDEAREN ERATZE-PROZESUA. V. BIBLIOGRAFIA.

I. PLANTEAMENDUA

XIV. mendeko hainbat testigantzatan, gertuko lurraldearen mugetatik kanpo hedapen handia lortu zuen zuzenbide propioaren gune sortzaile gisa erakutsi izan da Jaka, erresumako mugetatik oso urrun iristeraino.

Haien artean, adierazgarriena eta, halaber, interesatuena, zalantzarik gabe, 1342. urtean Jakako juratuek Iruñeko beren kideei emandako erantzuna da, iruindarrek haien foruak konpultsa eta zuzen ditzatela eskatzen baitiete, Ja-

¹ Testu hau lan honen egokitzapen bat da, aldaketa oso gutxiarekin: La difusión del fuero de Jaca en el Camino de Santiago. *El Fuero de Jaca II: Estudios*, Zaragoza: Aragoiko Justizia, 2003, 113-160 or. Aragoiko Justizia erakundeari eskerrak eman nahi dizkiogu lan hau erreproduzitzeko baimena emateagatik.

kakoen ereduari oinarrituta. Erantzun horretan onartzen da Iruñea foru horren bidez populatu eta pribilegiatu dela; era berean, adierazten da bazirela Jakakoak zirela esaten zen hainbat foru-liburu printzipioz harekin bat ez zetozenak (*muytos libros de fueros que se decian seer de Jaca, los coales en partida non concordaban*). Eta azkenik, nolabaiteko garratzasunez, Nafarroako hiriburuko agintariei aurpegiratzen zaie Jakako auzitegiei apelazioak aurkezteko jarduna eten izana foru haren pekoa izanik eta haren mendekotasun politikoa gorabehera; hau da, garai hartan Donostiak eta Hondarribiak oraindik egiten zuten gisara, Gaztelako erregearen mendekoak zirelarik ere (*que son de la seynnoría del Rey de Castiella*²). Apelazioen gai hori *Penintsulako Estatuaren Kronikan* (*Crónica de los Estados peninsulares*) ere jasota dago. Lan horretan, tradizio fidagarritzat jotzen da, eta Nafarroak jardun hori etetea Antso Azkarrari leporatzen zaio³.

Nafarroari eta bere foraltasun motei buruzko beste erreferentzia bat jasota dago Foru Orokorren kodex baten orri-bazterreko ohar batean, zeina Erresumako Artxiboan gordetzen baita. Han, Erresuman noizbait indarrean egon direla irizten zaien zazpi foruen artean bigarren eta hirugarren lekuan aipatzen dira, berezko nortasunarekin, Jakakoa eta Lizarrakoa. Horrekin bat etorritik, Jakako forua eman zitzaizen Iruñea hiriari eta Zangoza, Irunberri, Larrasoaina, Atarrabia, Lantz, Etxarri eta Alesbes hiribilduei. Bestalde, Lizarrako forua jaso zuten Erriberrik, Garesek, Tebasek, Elok eta Tafallak⁴.

Kasu batean zein bestean, Donejakue Bidean dauden lekuak dira –Orreagako pasabidetik–, bai eta merkatariek erabiltzen zituzten bideetako beste leku batzuk ere: Jakatik Iruñerako bidean, Zangoza, Irunberri, Urrotz eta Atarrabia; Frantziarako bidean, Atarrabia, Larrasoaina eta Orreaga; eta Baionarako eta Donostiarako bidean, Lantz eta Doneztebe. Hain zuzen, horri erantzuten dio garai-ko dokumentazioak; izan ere, oharpen horretan aipatzen diren zenbait lekutako

² Dokumentua Jakako foruaren Ap idazketa gisa argitaratu zen. MOLHO, M., *El fuero de Jaca. Edición crítica*, Zaragoza: Instituto de estudios pirenaicos, 1964, 7-9.

³ Nolanahi ere, Jakako forua Sobrarbeoarekin identifikatzen du: *Et dizen mas, que Navarra e Ypuzcoa se gobiernan por el fuero de Sobrarbe; que sy los reyes fuessen de Navarra, los privilegios que fueron de Navarra ternian; et oy en dia los de Ypuzcoa apellan al fuero de Sobre-Arbe, et los de Navarra si fazian, sino que lo vedo el rey don Sancho l'Encerrado* (arg. UBIETO, A., *Crónica de los Estados Peninsulares (Texto del siglo XIV)*, Granada: Granadako Unibertsitatea, 1955; cfr. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros de Navarra I. Fueros derivados de Jaca: 1. Estella-San Sebastián*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1969, 20. or., 10. oharra. Sobrarbeo foruari buruz, Aragoiko foraltasun militarren eta Jakakoak ordeztzen duen foru burgesarekiko konkomitantiaren adierazle den aldetik, irakur LALINDE ABADÍA, J., *Los fueros de Aragón*, Librería General, Zaragoza: 1976, 27-33 or.

⁴ Hemen ageri da haren testua: LACARRA, J. M., Notas para la formación de las familias de fueros navarros, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 10 (1933), 206 or.

sortze-agiriak kontserbatu egin dira⁵. Bestalde, kontserbatu den Aragoiko dokumentazioak agerian uzten du Donejakue Bideko Aragoiko adarreko leketan ere Jakako forua aplikatu zela. Hain zuzen, bide hori Somportetik Jakara doa, eta Aragoi ibaiaren ibilguari jarraiki Berdungo kanalera zuzentzen da, Nafarroan Zangoza eta Tebastik sartu eta Garesen Donejakue Bidearekin elkartzeko. Berdunek eta Luesiak berariaz jaso zuten Jakako forua, baina, nolana ere, bidea sortu baino lehen populatu ziren leku horiek eta ez dute erlazio berezirik erromes-bidearekin⁶.

Datu horiek guztiak bat datoz funtsean: Jakako juratuen gutuna eta *Crónica* bat datoz gorako helegiteen gaia tratatzeko orduan, baina nork bere ikuspegitik jorratzen du. Nolanahi ere, zalantza dago ea azken horretan egiten den orokortzea –Nafarroaz eta Gipuzkoaz hitz egiten du– baliabide narratibo hutsa den edo errealitate historikoari erantzuten dion. Kasu horretan Lizarra ere helegiteak jartzera Jakako auzitegiara jo beharko luketen hiribilduen artean sartu beharko litzateke; izan ere, Lizarrako forua Jakakoarekin identifikatuta ageri da Donostiakoaren eta Hondarribikoaren bidez. Hori horrela balitz, kontraesantzat jo beharko al litzateke Foru Orokorreko oharpenaren egileak haien bien artean adierazitako aldea? Ala, agian, itxurazko kontraesan horrek zerikusia ote du XIV. mendeko Iruñeko juratuei, aplikatu beharreko arauetan, nahasmena sortu zieten bertsio desberdinekin?⁷ Ugaritasun horren kausari buruzko galdera egin behar da, zeina, itxuraz, lehenagotik baitator; izan ere, Jakako agintariak behartuta zeuden beren foru zaharren eruedetara jotzera. Eta, horrez gain, balizko jatorrizko arrazoi bat zein izan daitekeen esatera ausartu daiteke, harrigarria baita Jakako foruaren kontserbatutako eskuizkribuek horri buruz ezer ez esatea –are gehiago, inkongruentzia izan daiteke–; izan ere, Jakako foruaren bertsio aragoarretan ez da aipatzen errege-pribilegiorik, ez eta erreferentzia pertsonalik ere. Aitzitik, bertsio nafarretan, *D* letraz tipifikatutako idazketa Borrokalariak Iruñeko San Zernini emandako foru-gutunarekin hasten da, eta, jarraian, hitzau-

⁵ Vid. *infra* III.a, Jakako foruaren hedapena.

⁶ Vid. SESMA MUÑOZ, J. Á., El camino de Santiago en Aragón. *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela y San Salvador de Oviedo en la Edad Media, Actas del I Congreso Internacional celebrado en Oviedo del 3 al 7 de diciembre de 1990*, Oviedo, Asturiasko Printzerriko Gobernua, 1993, 87-101 or.

⁷ Nahasmen hau ez da oraindik gaintitu, egun Jakako forutzat hartzen diren bertsio ugarietako bat bera ere ez baitator guztiz bat 1342an Jakako epaimahaiek zeukaten Jakako foru zaharrenek ereduarekin; izan ere, juratuen gutuna barne hartzen duen zuzendutako arauetako bat ez dator bat haietan dagoen ezeinekin, baina bai, ordea, eta hitzez hitz, kodex villarensen jasota dagoen Aragoiko foruen idazketako arau batekin (ed. RAMOS LOSCERTALES, J. M., *Textos para el estudio del derecho aragonés en la Edad Media, Anuario de Historia del Derecho Español*, 1 (1924), 403. or; horri guztiari buruz vid. MOLHO, M., *El fuero de Jaca, op. cit.*, XXI-XXII).

rrean testu normatiboaren egiletza Witiza erregeari egozten zaio (700. urtea). Hitzaurre horrek Errege Forua ekartzen du gogora, eta, are gehiago, Errege Foruko paragrafo ugari hitzez hitz jasotzen ditu⁸.

Nolanahi ere, alderdi horrek ez du Jakako zuzenbidearen ikerlarien arreta erakarri. Antso Ramiritzek Jakari forua emateko erabilitako dokumentua existitzen da eta hori erabakigarria izan da historiografiak dokumentu hori eta errege hori jo ditzan zuzenbide⁹ horren abiapuntutzat, eta pribilegio horren luzapentzat jo dezan foru hori beste hiribildu batzuei ematea bai une hartan eta bai gerora. Hori horrela izanik eta kontserbatutako dokumentuak ikusirik, harrigarria da pribilegio hori idatziz emateko egon den tradizio urria, bai bere jatorrizko lekuan, bai bere hedapen-eremuko hiri eta herrietan. Horri gehitu behar zaio hedapen hori ez zela gertatu dezente geroago arte –XII. mendearen bigarren herenean–. Alfontso I.aren ekimenez eraman zen aurrera aipatutako hedapena, eta une horretatik aurrera soilik orokortu zen Jakaren aipamena dokumentuetan; gerora harekin identifikatu ziren eskualdeko beste foru batzuk. Eta ez hori soilik; izan ere, irakurraldi bat nahikoa da ikusteko zer nolako alde nabarmena dagoen Jakako forua emateko erabilitako testuen –jatorri hori berariaz aitortuta dutenak eta ez dutenak– eta Antso Ramiritzen foruaren artean. Argudio horiek nahikoa dira zalantzan jartzeko ea foru hori –egun ezagutzen dugun forman– egiazki bat ote datorren errege horren jardunaren edukiarekin. Ondorioz, hura argitzeari ekin behar litzaioke, Jakako familia foralaren testuen analisi kritikotik abiatuta.

II. JAKAKO DOKUMENTU FORALAK

Jakari buruzko Erdi Aroko dokumentazioa *Libro de la cadena* liburuan bildu zutelako kontserbatzen da. 1398. urtean osatu zen guztiz, Martin I.aren berrespena jaso zezan. Badirudi errege-pribilegioak jasotzen dituen zatia Pedro III.a erregeak, Pribilegio Orokorra zela-eta, erresumako hiri eta hiribilduei beren pribilegioak berresteko egindako promesaren ondorioz osatu zela. Pribilegio hori 1283ko urriaren 20an sartu zen indarrean Jakari eta beste herri batzuei dago kienez¹⁰. Han bildutako errege-pribilegioen artean, bik foru-gutunen izaera

⁸ Hitzaurre hori, halaber, Jakako forua (*E* bertsioa) jasota dagoen Errege Jauregiko Liburutegiko eskuizkribu batean (944) ageri da (egun Salamancako Unibertsitatean, ms.2652); Molhok identifikatua (ms. E 1); vid. MOLHO, M., *El fuero de Jaca*, op. cit., XXVI-XXVIII or.

⁹ Horrela, esaterako, M. MOLHOK zera ulertzen du: «hasiera batean [Jakako foruaren] konpilazioak independenteki idatzi ziren Jakan eta Iruñean, bi kasuetan Antso Ramiritzen foru latinoa oinarritzat hartuta» (*El fuero de Jaca*, XXXI. or.).

¹⁰ Vid. UBIETO, A., *Jaca: Documentos municipales, 971-1269*, Valentzia: Cronista Almela y Vives, 1975, 13-14 or.

dute; bata Antso Ramiritzen emakida gisa ageri da, eta, bestea, Alfontso II.aren emakida gisa¹¹. Gainera, badira foruak berresten dituzten zenbait dokumentu, baina haietako batek soilik, Ramiro II.ari zor zaionak, aipatzen du jarduketa jakin bat –haren aitarena–, bai eta erreproduzitzen duen kapitulu sorta bat ere. Ez zuten gauza bera egin haren oinordekoek foruak berretsi zituzten aldietan, modu generikoan egin baitzuten beti, bai foruen edukuari eta bai haien emaleei dagokienez. Horrela egin zuen Petri II.ak 1197. urteko azaroko dokumentu batean, non bere arbaso txit gorenek emandako foruak eta ohiturak (*illos fueros et consuetudines*) berretsi baitzituen haiek egin eta baimendutako tresnen arabera, eta 1208an, foruak berriro berretsi zituenean, horrekin batera beste pribilegio batzuk ere eman zituen¹². Era berean, Jakue I.ak zenbait unetan gauza bera egin zuen: 1225ean, 1227an eta 1269an¹³. Beste zenbait errege-jarduketan helburua pribilegio jakin batzuk ematea zen, eta pribilegio horietako batzuek foruetan jasotako gaietan dute eragina. Alfontso II.ak, 1192. urteko abuztuan, etxeko bakea bermatu nahi zuen; Petri II.ak, 1197an, asteroko astearteko azokaren emakida egin zuen eta infantzoiei eta klerikoei onibarrak saltzea debekatu zuen; 1203an, hiribilduko biztanleen eskariz, haragi-salmenta pisura egin zedila agindu zuen; eta 1212an juratuen instituzioa ezarri zuen¹⁴.

1. Antso Ramiritzen forua

1.1. Haren tradizio idatzia

Jakako foru laburra izenez ezagutzen den testuaren bi bertsio kontserbatu dira; haien bien arteko alde nabarmenena eduki normatiboaren hedadura da.

Haietako zabalena bi aleren bitartez iritsi zaigu: bata pergaminoan idatziriko sasi-originala da, Jakako udal artxiboan kontserbatzen dena (1. kutxa,

¹¹ Ikerlan honetan aipatzen diren testu foralen eta beste testu foral batzuen edizioei dagokienez, vid. BARRERO GARCÍA, A. M. eta ALONSO MARTÍN, M. L., *Textos de derecho local español en la Edad Media. Catálogo de fueros y costums municipales*, Madril: CSIC, 1989, voces correspondientes. Aragoiko testuetarako honako hauek gehitu behar dira: UBIETO, A., *Documentos de Ramiro II de Aragón*, Zaragoza: Anúbar, 1988; LEDESMA RUBIO, M. L., *Cartas de población del Reino de Aragón en los siglos medievales*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1991; CANELLAS, Á., *La colección diplomática de Sancho Ramírez*, Zaragoza: Real Sociedad Económica Aragonesa de los Amigos del País, 1993; Antso Ramiritzen Jakako foruari buruz, halaber, ikus: MORALES ARRIZABALAGA, J., *Privilegios altomedievales: El fuero de Jaca (c. 1076)*, Zaragoza: Zaragozako Unibertsitatea, 1997; Tebasko foruari buruz, ikus: JIMENO ARANGUREN, R. (koord.), *Documentación histórica sobre la villa de Tiebas*, Tebas: Tebasko kontzejua, 1999.

¹² UBIETO, A., *Jaca, op. cit.*, 23. eta 30. zk., 75. eta 87-89 or., hurrenez hurren.

¹³ *Ibidem*, 52, 54. eta 66. zk., 128., 130. eta 149. or.

¹⁴ *Ibidem*, 22., 24., 25., 28., 33. eta 34. zk., 74., 76., 77.-78., 85., 95.-98. or.

13. orri-sorta, 3. zk.), letra bisigotikoan idatzia eta XII. mendekoa jotzen dena¹⁵, zehatzago esanda, XII. mendearen lehen erdikoa¹⁶. Halaber, forua *Libro de la cadena* liburuan kopiatu zen; beraz, 1283. urtean. Tresna bat zein bestea oinarritzat hartuta, haien editoreek ez badute hura berariaz aipatzen ere, pentsa daiteke XIII. mendeko kopia zuzenean sasi-originalaren gainean egin zela, eta hori egoia da onartutako kronologiari dagokionez, bai eta bi tresnek duten muturreko literaltasuna kontuan izanda ere. Horrenbestez, Ubietok dokumentuaren bere edizioan aurkeztutako aparatu kritikoan egiazta daiteke aldaera horiek oso gutxi direla –sei– eta haien funtsa baliogabea, kasu jakin batean izan ezik: kopian, 21. arauari, XIV. mendeko letraz gehitzen zaion azken paragrafoa, non ehotze-askatasunetik kanpo uzten baitira juduak eta merkataritza-helburuetarako ogia fabrikatzeko irina, zeina sasi-originalean ageri baita. Dokumentuaren transmisio testualari dagokionez, interesgarria izaten jarraitzen du horrek; izan ere, hainbat azalpen izan ditzake, egin gabe utzitako zerbaiten zuzenketa berantiarra izan baitaiteke –nahi gabe egindakoa dela pentsa daiteke, hau da, *Libro de la cadena* liburuaren kopistak oinarritzat zuen sasi-originala kopiatzean egindako akats bat dela–; edo, bestela, pentsa daiteke sasi-originalaren egileak bere kabuz gehitu zuela esaldi hori, eta horrek behartzen gaitu pentsatzera agian ez dagoela zuzeneko harremanik bi tresnen artean, baizik eta aipatutako paragrafoa ageri ez zen eredu beraren kopia independenteak direla. Azkenik, hirugarren aukera bat eskaintzen da: sasi-originala *Libro de la cadena* liburuaren kopia oinarritzat hartuta egin izana, liburu horretan gehikuntza hori egin eta gero; hori horrela balitz, diploma horren egikera XIV. mendean kokatuko litzateke.

Bertsiorik laburrena ezagutzen da erreproduzitu egin zelako Ramiro II.a-aren Jakako foruaren berrespenean eta Antso Jakitunaren Lizarrako foruaren berrespenean, 1164. urtean¹⁷. Jakako dokumentukoa kontsideratu izan da Antso Ramiritzen foruaren osatu gabeko kopia bat, aipatutako berrespenean dagoena¹⁸. Era berean, Lizarrako foruan dagoen bertsioa Lizarrari hiribilduaren fundazioaren unean hark egindako mota horretako emakida batekin lotu izan da. Duela gutxi arte, fundazio hori 1090ean kokatu izan da¹⁹, baina inoiz ez da erlaziona-

¹⁵ *Ibidem*, 8. zk., 49. or., eta haren jarraian LEDESMA RUBIO, M. L., *Cartas de población*, op. cit., 2. zk., 26. or.

¹⁶ LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Fueros de Navarra I. Fueros derivados de Jaca 2. Pamplona*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1975, 1. zk., 105. or.

¹⁷ Vid. *infra* 80. oharra.

¹⁸ LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Pamplona*, op. cit., 1. zk., 105. or., Antso Ramiritzen foruaren D ale gisa aitortua.

¹⁹ Beraz, LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Estella*, op. cit., 17-18 or. Gerora, Martín Duquek adierazi du Lizarraren populaketa urte horretan kokatzen duen dokumentua apokrifoa dela, eta,

tu –bien arteko bat-etortze nabarmen eta adierazgarriak izan arren– aipatutako bere semearen berrespenean jasota dagoenarekin²⁰. Hala ere, Jakako foruaren bi bertsio labur horien arteko analisi konparatiboak eta Antso Ramiritzen dokumentuarekin egindakoak errealitate nahiko desberdina erakusten dute; izan ere, bi berrespenen testuen arteko zuzeneko harremana agerian geratzen da, jatorrizkotzat jotzen den dokumentuarekin alderatuz.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da bi bertsio laburrek bertsio luzetik arau berak jasotzen dituztela; izan ere, Lizarrako foruak ez du jasotzen Antso Ramiritzen foruko araurik Ramiro II.aren berrespenean ageri ez denik. Bi testuek ez dituzte hartzen Antso Ramiritzen forutik hasierako bost paragrafoak eta amaierako hiruak. Lizarrako foruak ez du hartzen Jakako foruko 23. araua, baina, ordea, ageri da foru horren berrespenean.

Oso deigarria da, halaber, berrespenetako hitzaurreek elkarrekiko duten literaltasun-maila Jakako testu originalarekin alderatuta. Horrenbestez, auzokomunitate bakoitzari egindako foruaren lehen emakidan baldintzak antzekoak izan zitezkeen arren, horren justifikazioa testuen zuzeneko harremanean soilik aurkitu daiteke, eta, are gehiago, kontuan izan behar da emaile bakoitzaren kantzelaritza-ohitura berezko eta bereziekin osatu zela testu bakoitza²¹. Hori dela eta, dokumentu batean zein bestean ikus daiteke hitzaurre horretako klausulen formulazioaren aldaerek inbokazioari soilik eragiten diotela; hots, Jakakoan trinitarioa baldin bada, Lizarrakoan dibinitateari buruzkoa da, errege Jakitunaren dokumentuetan ohikoa den legez. Beste desberdintasun batzuek, logikoki, izaera pertsonala eta topikoa dute; esaterako, Lizarrakoan ez da aipatzen forua ematen duen erregeak Antso Ramiritzekin duen erlazioa, eta *Jaka* izena *Lizarrarra* izenarekin ordeztzen da. Eta ez dira falta zenbait desberdintasun literal huts, hala nola *quotidie faciat* esamoldeko hitzak alderantzikatzea eta, Lizarrakoan,

era berean, hainbat testigantza dokumental aurkezten ditu 1076an jada bazegoela erakusten dutenak eta, ziurtasun osoz, 1084. urtea baino lehen existitzen zela erakusten dutenak. Vid. MARTÍN DUQUE, Á. J., La fundación del primer burgo navarro. Estella, *Príncipe de Viana*, 51. bol., 190. zk. (1990), 317-327 or.

²⁰ Vid. horri buruz egin den ikerlan berriena: PAVÓN BENITO, J., Fuero de Jaca y fuero de Estella. Observaciones críticas, *XV Congreso de Historia de la Corona de Aragón. Actas. Tomo III. Jaca en la Corona de Aragón (siglos XII-XVIII)*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1994, 343-353 or.

²¹ Lantzen ari garen aldiko Aragoiko kantzelaritza buruz, vid. CANELLAS LÓPEZ, Á., La cancellería real en el reino de Aragón (1035-1134). *Folia Budapestina*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, CSIC, 1983, 23-46 or. Antso VI.aren kantzelaritza buruz, GARCÍA LARRAGUETA, S. eta OSTOLAZA ELIZONDO, I., Estudios de diplomática sobre fuentes de la época de Sancho el Sabio. *Vitoria en la Edad Media. Actas del I Congreso de estudios históricos celebrado en esta ciudad del 21 al 26 de septiembre de 1981 en conmemoración del 800 aniversario de su fundación*, Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 1982, 115-215 or.

erregearen etorkizuneko jarduna proiektatzea. Mota horretako beste zenbait –eta hori adierazgarria izan daiteke Lizarrako eskuizkribuen genealogia finkatzeari dagokionez– zaharren kontsideratzen den idazketarekin -A-²² lotuta gertatzen dira soilik; baina ez da hala gertatzen B idazketan, hala nola *et* juntagailuaren omisioa eta Antso Ramiritzi buruzko *qui requies sit* esaldiaren omisioa, edota erregearen jarduna indartzeko sartzen den *concedere* aditza.

Bi hitzaurreen arteko literaltasun-ezaugarri hori arauen enuntziatuetan ere mantentzen da. Testu batean zein bestean, erregearen aurretiazko jardun batekin lotzeko –Antso Ramiritzen forua–, lehenaldiko aditz formak erabiltzen dituzte arauak formulatzeko orduan, eta, halaber, nahiz eta Jakako bertsioak aurrekoarekiko hurbiltasun formal handiagoa izan dezakeen, identitate-zantzuak hautematen dira bertsio laburretan beste horren aldean. Esaterako, bi bertsio laburretan *ire noluisse* esamoldea erabiltzen da *non volet ire* esamoldea erabili beharrean –hain zuzen, azken esamolde hori erabiltzen da Jakako foruan armadari buruzko arauan–, eta, era berean, *habere* aditza erabiltzen da *dare* aditza erabili beharrean estuproari dagokion arauan, eta, bi aldiz, *vobis* pertsona-izenordainaren omisioa egiten da urte eta egunaren preskripzioa ezartzen duen arauan. Baina, zalantzarik gabe, mendekotasun horren zantzu adierazgarriena testu horietan *pariare* aditzarekin egiten den erabilera da. Termino horrek bi adiera izan ditzake. Batak, ohikoenak, ordaintzea, zor bat kitatzea adierazten du; besteak, berriz, berdintzea, beste baten parean jartzea adierazten du –iragangaitz eta pasibo gisa–²³. Antso Ramiritzen Jakako foruan, hitz hori adierazitako lehen adieran soilik erabiltzen da, eta soilik lehen arauetan, hain zuzen, bertsio laburretan ageri ez direnetan. Bertsio laburretan ordaindu esanahiarekin erabiltzen da, oro har, baina, halaber, bortxaketa-kasuei buruzkoetan ere erabiltzen da, bigarren adieratik gertuago dagoen esanahiarekin. Jakakoaren kasuan, badirudi testuinguru horretan erabiltzea ez zela ulertzeko oztopo. Lizarrakoan, berriz, badirudi baietz; izan ere, dagokion adiera glosa baten bidez argitzen da²⁴. Eta, dirudienez, hori bera gertatzen da Antso Ramiritzen foruarekin ere, baina kasu horretan ez

²² Vid. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Estella, op. cit.*, 31-32 or. Hala eta guztiz ere, datu horiek agerian uzten dute B idazketa A idazketa baino lehenagoko testu batean oinarrituta idatzi izan zitekeela, eta ez zuzenean A idazketa hori oinarritzat hartuta. Alderdi horri dagokionez, interesgarria da Martín Duquek Lizarrako eta Donostiako foruen transmisio testualari eta genealogiari buruz adierazten duen ikuspuntua (vid. MARTÍN DUQUE, Á. J., *El fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica. Congreso El fuero de San Sebastián y su época*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 9-10 or.).

²³ Cfr. DU CANGE, *Glossarium Mediae latinitatis et infimae Latinitatis*, Niort, Favre, 1883-1887.

²⁴ F E I, 6.3: Hoc est pariare: Si mulier non est digna ut sit uxor illius, debet ille qui forciavit eam dare illi talem maritum unde fuisset honorata antequam habuisset eam...

da erabiltzen azalpen-glosa bat, baizik eta zuzenean ordeztan da terminoa kontzeptuarekin²⁵. Jakako foruaren bertsio laburretan adierazle bera erabiltzen da, eta ez Jakako foruan bertan erabiltzen den aukera. Horrek berriz ere adierazten du bi bertsio laburren arteko mendekotasuna, non Antso Ramiritzen testuak ez baitu lekurik. Bestalde, bai Antso Ramiritzenean bai Lizarrakoan, *pariare* terminoa adiera bakarrarekin erabiltzen da, eta horrek adierazten du bien artean hurreman bat egon daitekeela, zeinak testu-oinarri hurbilagoa edo urrunagoa izan baitezake. Nolanahi ere, hori guztia osotasun-ikuspegi batetik begiraturaz gero, paragrafo horren transmisio testualean ikusten den gradazioa nabarmendu behar da –terminoa, glosa eta kontzeptua–, are gehiago, ikusirik eskuarki onartzen den ordenaren alderantzizkoan gertatzen dela; izan ere, Antso Ramiritzen testua jotzen da Jakako jatorrizko forua.

Bestalde, Lizarrako foruaren bi idazketak –*A* eta *B*– bat datoz elkarrekin, ez baitituzte onartzen Jakakoetan –laburra eta luzea– egiten diren irakurketa jakin batzuk; nolana ere, ez zaizkie beti soluzio berberak ematen²⁶, arauen edukian eragiten duten –aldatuz edo osatuz– elementuak daudenean²⁷.

1.2. Haren kritika diplomatikoa

Aita Huescak Antso Ramiritzen Jakako forua argitaratu zuenetik (bertsio luzea), haren hainbat argitalpen egin dira, hura jasotzen duten kontserbatutako tresna bati edo besteri jarraikiz. Beraz, aski ezaguna den testu bat da, eta haren analisiak zalantzarako eta eztabaidarako puntu bat baino ez die eman adituei: data zehaztea. Izan ere, klausula kronologikoan, aroa aipatzen denean, ez daude hamarrekoei eta unitateei dagozkien zifrak. Eman diren soluzioen artetik, egun, probabilitate handia aitortzen zaio Ubieto irakasleak ezarritakoari: 1077. urtea.

²⁵ F J 12: ...Et si sit causa quod eam forçet, det ei maritum

²⁶ F J 7=F E I, 2.1: *malo cisso*] *A: interdicto vel cisso, B: impedimento*; F J 8= F E I, 2.2: *anno uno et die*] *A: anno et uno die, B: uno anno et una die*; F J 9=F E I, 2.4: *circuitu illius*] *A: illo, B] Stelle*.

²⁷ Armadaren erregulazioari dagokionez (J 1=E I, 1.2) Lizarrak aurreikusten du ez-betetzea, eta 60 soldataro zigorra ezartzen du; Lizarrak urak sartzen ditu aprobetxamendu komunalen enuntziatuan (J 4= E I, 2.3); Borroka judizialari dagokionez (J 5= E I, 4.1), Lizarrak alde batera uzten du bizilagunen arteko kasuaren planteamendua, ez du aurreikusten bertakoen irizpidea lehenestea kanpotarrenaren aldean araua betetzeari dagokionez, eta, azkenik, soluzio positibo bat gehitzen dio kasuari ordeztan aukera bikoitz eta graduatuarekin. Bestalde, *B* idazketak zehaztasunak gehitzen dizkio arauaren zati horri, zeina formulazio nafarrak berezkoa baitu; eraso mota jakin batzuegatik jarritako *caloña* edo isunari dagokionez, Lizarrak 60 soldataro handitzen du Jakak ezarritako isunaren zenbatekoa (J 10=E I, 7.2); Lizarrak bahia fidantzaren truke egiteko aukera aurreikusten du, bahia dela eta etxeko bakea hausten den kasuetarako (J 12= E I, 8); epaiketarik egiteari dagokionez, Lizarrak zabaldu egiten du araua, beste inguruabar batzuk barne hartuz (J 14= E I, 10); eta, azkenik, neurrien faltsifikazioari dagokionez, Lizarrak zabaldu egiten du arauen enuntziatua (J 15= E I, 11).

Data hori ezartzeko, Ubietok oinarritzat hartzen du errege-intitulazioaren formula, eta, halaber, dataren gabezia numerikoa justifikatzeko, kopia egin zuen eskribak originaleko zifrak ulertzeko izandako zailtasunean oinarritzen da²⁸. Baina ezein unetan ez da dokumentuaren benetakotasunaren inguruko susmorik izan; horrenbestez, beste informazio- eta kontraste-elementurik ez dagoenez, han bildutako datuek balio axiomatikoa hartu dute bizilagun-gune horren garapeneko lehen urratsen historia deskribatzeko garaian. Hala ere, lehen, tradizio dokumentalaren segimenduan nabarmendutako alderdiak –kontserbatutako sasi-originala *Libro de la cadena*²⁹ liburuan jasotako kopia baino geroago egina izateko aukera, eta, halaber, foruaren bertsio ezberdinetak bortxaketari buruzko arauaren idazketa-sekuentzia eskuarki onartutako kronologiari egokitzeko zailtasuna– dokumentu hau berriz ere eskatzen duen arretaz irakurtzeko nahikoa arrazoi gisa aurkezten dira.

Ikuspuntu formal batetik, testua hiru zati argitan bereizita aurkezten da, garaiko diplomekin eta, zehazki, erregeak emandako pribilegioekin bat etorritik, zeina emaile bezala ageri baita: klausula protokolarioak, formulazio laburrekoak, arau multzo erlatiboki zabala eta itxura unitarioa duena, editoreek 24 paragrafotan banatua; hertsatze-klausula bat; eta, azkenik, eskatokoloari dagozkionak, hau da, Antso erregearen eta haren ondorengo Petri I.aren zeinuen aposizioa eta kronologikoa.

Dokumentua inbokazio bikoitz monogramatiko eta nominal konposatu –kristologikoa eta trinitarioa– batez hasten da. Ondoren jakinarazpen-klausula dator, bi zatitan garatzen dena: lehenengoan, monarka horren jardun dokumentalarekin bat etorritik, dokumentuaren ezaugarriak azaltzen dira, eta, jarraian, emailearen aipamena egiten da hari dagokion titulazioarekin; halaber, lekua ere aipatzen da. Jarraian, espero zitekeenaren kontra, ez dator arau multzoa, baizik eta bigarren jakinarazpen-klausula bat. Klausula hori ez da gutunari buruzkoa, baizik eta Jaka hiribildu izatetik hiri bilakatzeko errege-borondateari buruzkoa. Nahikoa harrigarria da klausula horren formulazioa, hari eman nahi zaion irismena dela eta; izan ere, jakinarazpen bat baino gehiago lau haizeetara egiten den erregearen desioaren aldarrikapena da –literala–, larderiazko terminoetan, gainera –*ego volo constituere*–, eta ez antzeko egoeratan erabili ohi zen formularekin (*placuit mihi libenti animo et spontanea voluntate*).

Bigarren jakinarazpen hori alde batera utzita, protokoloko klausulek ez dute anomaliarik erakusten, baina ez da horrela gertatzen dokumentuaren

²⁸ Horri guztiari buruz, vid. UBIETO, A., *Jaca*, *op. cit.*, 20-21 or.

²⁹ Aukera hori are sinesgarriagoa egiten da; izan ere, XIV. mendeko gehikuntzaren xede den manak enuntziatu bera eskaintzen du, hau da, gehikuntza hori gabe, Jakako foruaren bertsio laburrean.

amaieran ageri diren izaera horretako klausulekin. Horiek, araudi nagusia itxiz, hertsatze-klausula bat dira, zeinak agertzea salbuespena baita garaiko Aragoiko errege-dokumentuetan, foruetan izan ezik, kasu honetan bezala, betiere zehapen ekonomikoekin eta ez espiritualekin; izan ere, azken horiek ohikoagoak dira idaztegi eklesiastikoetan egindako dokumentuetan (izan errege-dokumentuak edo ez)³⁰. Eskatokoloari dagokionez, bi klausula soilik barne hartzen ditu: data eta erregearen izenpea, (beraz, azken hori baino lehenagoko berrespen-klausula alde batera uzten da). Hemen, gainera, eskatokoloa, ohiko ordena aldatuz, kronologikoaren ondoren ematen da. Kronologikoan urtea, osatu gabe, aipatzen da soilik; horrenbestez, egunari eta hilari buruzko aipamenak falta dira, bai eta Aragoiko dokumentuetan ohikoak izaten diren aipamen topikoa eta pertsonalak ere. Hutsune horiez gain, ageri den adierazpen kronologiko bakarra inkarnazioaren eta aro hispanikoaren zenbaketa bikoitzaren bidez egiten da. Zehazki dokumentu honekin ez, baina garai horretako dokumentuen datazioa soilik inkarnazio-aroaren bidez egitea edo bi forma horiek batera agertzea dokumentuaren faltsutasun zantzutzat eta anomalia argitzat jo izan dute garai eta eskualde hori lantzen duten adituek³¹, eta horrek, bestalde, kantzelaritza kataluniar-aragoarren estudioak berresten ditu itxuraz³².

Dokumentua amaitzeko, Antso Ramiritz eta Petri I.a erregeen zeinuen aposizioa ageri da, eta ez dago erregistraturik errege-mandatu egikaritzen duen eskribaren izenperik³³. Lehenaren signaturaren formula bere beste zenbait dokumentutan agertzen denarekin bat dator erabat. Ez da hala gertatzen haren semearenarekin. Kasu horretan, zeinuak baditu tronuratu ondoren hartu zituen ka-

³⁰ Vid. CANELLAS, Á., Cancillería, *op. cit.*, 36. or.; hala ere, Antso Ramiritzek emandako forue-tatik, Alquézar eta Castellarkoek zehapen espiritualeko klausula bat dute, baina formulazioa laburragoa eta bakunagoa da.

³¹ UBIETO, A., *Jaca*, *op. cit.*, 16. or.; *Libro de la cadena* liburuko dokumentu faltsuak zehaztera-koan eta Jakako Kontzilioaren ustezko aktak jasotzen dituztenei (4. zk.) eta Ramiro I.ak Jakako kate-dralari egindako hamahiru elizen donazioari (5. zk.) erreferentzia eginez –biak ala biak 1063an daude datatuak–, adierazten du Aragoiko dokumentuak beti datatu zirela aro hispanikoaren bidez, eta, kasuren batean, inkarnazio-urtearen bidez, erresumatik kanpoko pertsonaei edo instituzioei zuzenduta daude-nean. MARTÍN DUQUE, Á. J., *La fundación*, *op. cit.* lanean Lizarraren fundazio-dokumentua jorratzen du. Dokumentu hori 1090. urtean dago datatuta eta San Juan de la Peñako monasterioan du jatorria. Egilearen ustez, «aroaren eta inkarnazioaren bidezko ohiz kanpoko datazio bikoitzak manipulazioaren hipotesia indartzen du» (317. or, 1. oharra).

³² TRENCHS ODENAK, Alfontso II.aren eskribautza jorratzean, hau adierazten du hari buruz nahiz klausula kronologikoari dagokionez: «Aragoin emandako dokumentuetan aroaren erabilerari eus-ten zaio, baina, halaber, ikus daiteke Inkarnazioaren estiloak baduela aurrerapena –batez, ere eskribau katalanek idatzirik dokumentuetan–, zeina eraren ondoan jartzen baita» (*Las escribanías catalano-aragonesas desde Ramón Berenguer IV a la minoría de Jaime I*, in *Folia Budapestina*, *op. cit.*, 70. or.).

³³ Antso Ramiritzen kantzelaritzako eskribei buruz, vid. CANELLAS, Á., *La cancellería*, *op. cit.*, 26-27 or.

raktere arabiarrak, baina ez dator bat intitulazioarekin, esplizituegia baita haren genealogiari dagokionez –*filius Sancii regis, filii Ranimiri regis*–, eta ohikoena da *Pedro Sanç* edo *Sanchiz* gisa agertzea. Hori guztia kontuan izanda ere, erabat harrigarria egiten da bera izatea dokumentuaren eskriturazioa bere buruari egozten diona –*Ego, Petrus...hec supradicta scribi volui*–; izan ere, edukiari hitzez hitz heltzen badiogu –*hec supradicta iussi*–, haren aitak agindu besterik ez zuen egin.

Arau multzoa formulazio zehatzeko zenbait manuz osatua dago, eta formulazio hori emailearen autoritatearen izaera inperatibotik harago doa. Autoritate hori jardun pertsonal baten bidez azaleratzen da maiz, eta orainaldian, kasu batean izan ezik, eta kasu hori zinez da adierazgarria; izan ere, dozena bat hitzen bidez, jada erregeak aldarrikatu berri duen desira igarota –Jaka hiri-mailara igotzea–, ekimen horren berehalako eragina gaurkotzeko, Jakako biztanleek zituzten foru txarrak indargabetu nahi ziren (*in hunc diem quod ego constitui...esse civitatem*), eta, hortaz, onak izango ziren beste batzuk eman nahi ziren. Foru horiek, esaten denez herritarrek eskatuta, xede bakarra zuten (eta esan daiteke erregearen obsesioa ere bazela): hiriaren birpopulaketa modu egokian egin ahal izatea. Ezin zen izan beste modu batean; izan ere, Jaka, monarkak berak hala desio zuelako, *civitas* ez ezik, erregearen *civitas* ere bilakatzen da, ondare-ondasuna baino gehiago ondasun pertsonala balitz bezala. Behin eta berriz azpimarratzen da, baina, dirudienez, ez behar adina. Paragrafo horretaz harago, aipamenak Jakari egiten zaizkio, eta kasuren batean, hitz egiten duena erregea bada ere, hiribildua (*villa*) aipatzen da³⁴. Dokumentu honetaz harago, erregearen nahiak, hainbeste aldarrikatu denak, ez dirudi oihartzunik lortu zuenik, ez orduan ez hurrengo mendeetan, baina, hala ere, izan zuen oihartzuna XIV. eta XV. mendeetan, udal-eremuan³⁵; gaur egun ere bai³⁶. Era berean, badirudi Jaka-

³⁴ F J 4: «Et si aliquis, vel miles vel burguenses aut rusticus, percusserit aliquem et non ante me nec in meo palatio, quamvis ego sum in Iaca, non pariet calonia nisi secundum forum quod habetis quando non sum in villa».

³⁵ UBIETO, Antoniok –*Jaca, op. cit.*, 22. or.– nabarmetzen du apezpiku-aulkia Huescara eraman zenean XII. eta XIII. mendeko errege-dokumentuetan Jaka hiribildu gisa izendatzen zela, nahiz eta XV. mendeko kopista edo irakurle bat sistematikoki ezabatzen joan zen *villa* hitza *Libro de la cadena* liburuan, eta haren gainean *ciutat* hitza idatzi zuen. Liburu horretan jasotako dokumentazioan Jaka hiri gisa azaltzen den aipamenak salbuespenak dira, eta hori egiazta daiteke haiei buruzko konkordantzia lematizatuak eskaintzen dituen lan honetan: YAGÜE FERRER, M. I., *Jaca: Documentos municipales (971-1324). Introducción y concordancia lematizada*, Zaragoza: Zaragozako Unibertsitatea, 1995. Horien arabera, foruaren dokumentua eta 1063an datatutako Jakako katedralari hamahiru eliza donazioan emateko dokumentua, apokrifotzat joa (cfr. *supra* 31. oharra), alde batera utzita, 1238ko eta 1324ko bi dokumentutan soilik ageri dira Jaka hiriari buruzko aipamenak, eta haietako batek ere ez du jatorria errege-kantzelaritzetan. Era berean, Ramiro II.aren corpus dokumentalean, Ubietok bildua, Jakan datatutako 15 dokumentuetan (akats edo omisioak salbu), aipamen topikoa beti egiten zaio Jaka *villari*, bi

ko biztanleak (*populatores*), zeinei zuzentzen baitzaie erregea hasiera honetan, ahaztuak izan direla; izan ere, hertsatze-klausulan soilik agertzen dira berriro ere, errege-gutunaren hartzaile gisa.

Gainerako eduki normatiboak, testu foralek berezkoa duten doktrina kasuistikoaren barruan, nolabaiteko itxura bateratua erakusten du; izan ere, lehen paragrafoetako idazketaren sekuentzian –*Et unisquisque; et si evererit; Et si aliquis; et si evererit*– etena egiten da seigarren paragrafoa hasteko erabiltzen den forma pertsonal eta zuzenarekin –*dono et concedo*– eta haietan *pariare* terminoa erabiltzen da *pectare* edo *donare* terminoen ordez, eta hori oharkabean pasa liteke, ez balitz, hain zuzen, modu horretan eta paragrafo horrekin hasiko Jakako foruaren Ramiro II.aren berrespenean eta Lizarrako foruaren Antso VI.aren berrespenean jasota dagoen bertsio laburra. Bertsio labur horren eduki osoa eskaintzen da hemen, ordena berean eta desberdintasun testual bakan batzuekin. Horien artean hauek nabarmentzen dira: lehen aztertu dugun *pariare* terminoa saihestea, bereziki bortxaketari dagokion paragrafoan (§ 12); erregeak bere oinordekoei armada-obligazioaren gaineko mandatua zabaltzea, eta hori are deigarriagoa da, ikusi den bezala, eskatokoloko klausulen artean ez baitago betikotasun-berrespenaren ohiko formula; eta, orobat, arestian aipatutako 21. paragrafoko gehikuntza, non salbuetsi egiten baitira ehotze-askatasunetik bai juduak, bai merkataritza-helburuekin egindako ehotzeak. Horiek bezain adierazgarriak dira azken hiru klausulak, zeinek ez baitute elkarrekikotasunik idazketa laburrean. Izan ere, haien edukia dela eta, agerikoa da ez direla omisioak; aitzitik, jatorrizko testu foralari egindako Antso Ramiritzen testuaren gehikuntzak dira. Horrenbestez, badirudi Petri II.ak ezarri zuela Jakan, 1197ko azaroan errege-obligazioez salbuetsitako biztanleei, klerikoei eta infantzoiei, onibarrak

kasutan izan ezik (66. eta 79. dok.), biak ala biak 1135. urtean; eta aipamen horietan *urbe* esaten zaio Jakari, baina inoiz ez *civitas*, zeina, ordea, beti erabiltzen den Huesca aipatzeko. Hala ere, bada kontra-koa adierazten duen testigantzarik; esaterako, *Chronica Adefonsi Imperatoris* kronikan *civitas regia* gisa tratatzen da Jaka, 62. kapituluan Ramiro II.aren hautaketaz hitz egiten denean (ed. SANCHEZ BELDA, I., Madril: CSIC, 1950).

³⁶ Gertakari hori erabat onartzen du historiografiak. Hori justifikatzeko, historiografiak dio, oro har, zuzenbide kanonikoarekin lotuta dagoela; izan ere, zuzenbide kanonikoaren arabera, apezpiku-aulkiek hirietan egon behar dute eta Jaka aukeratu zen Aragoikoa ezartzeko. Gertakari hori 1063an kokatu izan ohi da, han egin zen Kontzilioaren akten edukian oinarrituta. UBIETO irakasleak apokrifoa zirela erakutsi zuen (*Jaca, op. cit.*, 16. or. eta ed. kritikoa, 4. zk., 36-41 or), eta, hori dela eta, ondoriozta daiteke gertakari horren arrazoia aldaketa batean dagoela: apezpikuen intitulazioetan Jakak Aragoi ordezkatzen du, eta horrela dago erregistratuta 1076tik aurrerako dokumentazioan (vid. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Pamplona*, 107. or.). Martín Duquek, berriz, –MARTÍN DUQUE, Á. J., *El primer burgo, op. cit.*, 323. or.– gertakari horren garrantzi politikoa kontuan hartzen du; izan ere, haren ustez, erregeak jaso berri zuen erresumako *civitas pamplonensis* paralelo bat Aragoi ezartzeko ekimenaren ondorioa da; ekimen horrek bi lekuak ohorezko egoera berean jartzea izango zuen helburu.

saltzeko debekua³⁷ –bestalde, horrelako manuak ohikoak dira erregeek emandako foruetan–. Era berean, zorreatatik espetxeratzeari eta jopu mairuaren bahiari buruzko azken bi arauak badute elkarrekikotasuna hiribildu horretako berezko zuzenbidearen formulaziotzat hartzen den Lizarrako foruaren zatian³⁸.

Dokumentu honen kritika diplomatikoak eta barnekoak dakartzan emaitzak espero zitezkeenak izan arren, nabarmenak dira. Ikuspuntu formal batetik begiratuta, dokumentu honetan ikus genezake mota horretako anomaliak daukela –hitzaurrean eta, bereziki, eskatokoloan–, zeinak nahikoak baitira esateko gaur egunera iritsi den dokumentua ezin izan zela haren emailatzat ageri den erregearen kantzelaritza-eremuan osatu. Bestalde, edukiak adierazten du konposizio konplexua duela, jatorri ugaritako elementu normatiboetatik abiatuta: lehenik, 16 xedapenez osatutako multzo zabal bat –§ § 6-21–, zeina, gutxienez, Ramiro II.aren garaian (1134-1137), haren aitak Jakari emandako forutzat hartzen baitzen. Nolanahi ere, bi bertsioen analisi konparatiboak agerian uzten du dokumentu honetan jasotakoa berrikusi egin zela dokumentuan sartu baino lehen, eta, halaber, planteatzen du dokumentu honetan transkribatutako eredia ez zettorrela guztiz bat harekin. Multzo honi jatorri desberdineko eta geroagoko hiru arau gehitu zitzaizkion –§ § 22-24–³⁹. Hori baino zailagoa da 2.etik 5.era arteko arauen jatorria finkatzea, bai eta arau horien jatorri komuna ziurtatzea ere. Esaterako, lehenak (§ 2), bere edukia dela eta, badirudi dokumentu honen protokolo hasierako klausulek jatorria duten hiri-gutun berean izango lukeela jatorria; hurrengo arauak, errege-justiziaren jardunari buruzkoak, Petri I.ak idatzi nahi izan zuen eta sinatu zuen dokumentuarekin lotu beharko lirateke agian –haren hitzei erreparatzen badiegu–⁴⁰. Hala ere, ezein oinarri dokumentalek ez

³⁷ Cfr. *supra* 14. oharra.

³⁸ Jakako 23. araua bat dator edukian Lizarrako E II, 2.22 arauarekin; antzeko formulazioa dute, baina ez zeharo literala. Jopu mairuaren bahiari dagokionez, Lizarrako E II, 2.26 arauan dago jasota, oso formulazio desberdinarekin, baina, ziur aski, ez edukian, arreta jartzen bazaio aurreko paragrafoen irakurketari (animaliaren bahiari buruzkoak). Hala ere, Jakakoan araua gogo humanitario batez jantzita dago, eta horrek geroko garai batean koka gaitzake edo, bestela, elizgizonen ingurune batean.

³⁹ Ohartarazi da lehenago ere 22. araua Jakarako formulatuta ageri dela Petri II.ak 1197ko azaroan emandako pribilegioetako batean; hala ere, infantzoiak eta klerikoak ezartzeko debekuak arau horretan indarrean jarraitzearen ondorio logikoa izan daiteke xedapen hori, zeina berariaz formulatua agertzen baita Jakako zuzenbidearekin oso lotuta dauden zenbait testutan, hala nola Zangozako burgu berrikoan, Gareskoan eta Iruñeko San Zerningoan (vid. *infra* III, 5.5.1). 23. eta 24. arauen kasuan, Lizarrako foruan ere agertzen direnez –lehen A idazketan jasotakoaren oso antzeko formulazioarekin–, pentsa liteke jatorri testual komuna izan dezaketela; izan ere, egia da arau horiek Lizarrako xedapenetan ageri direla, zeinak hiribilduan bertan emandako garapenaren adierazpentzat jo izan baitira. Lizarrako forua Antso VI.ak 1164. urtean berretsi zuela uste da.

⁴⁰ Hala ere, nahiz eta haren hasierako idazketa dela eta 5. paragrafoa 3. paragrafoarekin lotu behar den, formulazio apur bat nahasgarria duen araua da; izan ere, hari ematen zaion soluzioa, hau da, Jakan edo haren mugapean gertatutako hilketa batengatik egilea giza hilketaz errugabetzea ez dator guztiz

dirudi aurreikusteko modukoa multzo konplexu honen buruan dagoen arauarentzat; aitzitik, arau hori dokumentu hau egiteko arrazoi gisa aurkezten da, aipatutako iruzkin normatiboak oinarritzat hartuta, eta formalki lotuta dago heratsatze-klausulari eta eskatokoloko klausulei, zeinak oso argi adierazten baitute dokumentuaren irregulartasuna.

Horrenbestez, dokumentu hau ez dator guztiz bat Antso Ramiritzek garrantzi bereziko leku baten garapena sustatzeko emandako foruekin; aitzitik, multzo normatibo anitz baten aurrean gaude, eta horrek, hein handienez, jatorri pribilegiatua du, baina, hala ere, une jakin batean nahi bat aitortzeko tresna gisa erabili da –eta nahi hori juridikoa ez baino, sinbolikoa eta politikoa da–.

Behin puntu honetara iritsitakoan dokumentu hori egiteko beharra noiz eta zergatik sortu zen galdetzea nahitaezko bilakatzen da, baina ez da komenigarria oraindik erantzuna ematea, gainerako Jakako testu foralak guztiz aztertu arte.

2. Ramiro II.aren berrespena

Ramiro II.aren jarduketa hori jasotzen duten bi dokumentu kontserbatu dira, bakoitzari dagokion *Libro de la cadena* liburuko kopiaren bidez. Jarduketa horretan, Ramiro II.ak. Jakari bere aitak emandako foruak berresten ditu eta beste zenbait pribilegio eman. Bi dokumentuen artean lotura estu baten zantzu nabarmenak daude, ez soilik biek ekintza berari buruz hitz egiten dutelako, baizik eta zenbait paralelismo eta identitate testual dituztelako; baina, era berean, diferentzia handiak ere badaude bien artean, bai formari, bai garapen normatiboari dagozkionak. Egintza bati buruzko bi bertsio egotea praktika dokumentalean gertatzen den zerbait da. Hori gerta daiteke dokumentu baten lanketan izandako faseen testigantza kontserbatzeagatik –lehen testu batean erregearen *actio* bat erregistratzen da eta, bigarrenean, egintza hori jasotzen da guztiz formalizatutako dokumentu batean– edo, bestela, izaera foraleko pribilegioetan ohikoa da dokumentuetako bat aurrez eman den izaera orokorreko errege-emakida bati eduki normatibo espezifiko gehitzearen emaitza izatea; eduki hori emakidaren hartzailleek egin zezaketen, errege-eskribautzaz kanpo, beraz, ez da harritzekoa zenbait anomalia edo hutsune diplomatiko izatea⁴¹. Printzipioz, azken hori azalpen

bat kasuaren planteamendurekin. Planteamendu horretan jasotzen dena da lapurraren heriotza lapurreta egiten ari den uanean gertatzea, bizilekuaren bortxatze-egoera batean –Lizarrako foruan jasota dago manu hori (E II, 2.7)–, eta etxeko jabearentzat antzeko soluzioa ematen da.

⁴¹ Horri buruz, vid. BARRERO, A. M., El proceso de formación del derecho local medieval a través de sus textos: Los fueros castellano-leoneses. DE LA IGLESIA DUARTE, José Ignacio (zuz.), *I Semana de Estudios medievales, Nájera 1990*, Logroño: Instituto de Estudios Riojanos, 2001, 91-131 or.

egokia eta nahikoa izan daiteke kasu honetarako, dokumentu horiek erakusten dituzten aldeak kontuan izanda, bai formalak, bai haien edukiaren garapenean ageri direnak.

Diferentzia formal nabarmenenak eskatokoloaren klausuletan daude; izan ere, haietako batek –egun ezagutzen den bertsioan– ez du halakorik, baina hori gorabehera, hain zuzen, hantxe erregistratu ziren, emailearen izenpearen ondoren, haren ondorengo izenpeak Petri II.aren iritsi arte. Edukiari dagokionez, aldaera nagusiak hauetan oinarritzen dira: lehenik, monarkaren jardunaren funtsa den kausan; bigarrenik, berretsitako foruaren azalpen normatiboan –dokumentuetako batek ez dauka–; eta, hirugarrenik, berrespen-ekintzarekin batera gehitzen diren pribilegioen hedapen desberdinean, bai eta bi dokumentuetan ageri direnetan erabiltzen den formulazio desberdinean ere.

Osorik egituratutako dokumentua hasteko, aldi hartako kantzelaritza-erabilerarako egokiak diren protokolozko klausulak erabiltzen dira⁴²: Jainkoari egindako inbokazio nominal bakun bat; dokumentua *carta donationis et libertatis* gisa aitortzea; erregearen izena aipatzea –*rex* tituluarekin–, berariaz adierazi gabe bere menpeko lurraldeak eta bere filiazioa adieraziz. Jarraian, ekintzaren lekua⁴³ eta edukiaren jakinarazpena eta haren motibazioa ageri dira: lehenik, foruen berrespina, non berrespen hori formulatzeko terminoek gogora ekartzen baitituzte egun ezaguna den eta haiek barne hartzen dituela dioen dokumentuko hitzurreak –dokumentuak bere burua honela aipatzen du: *illos bonos fueros*–, eta, halaber, aipatzen du foru txarren indargabetzea⁴⁴, baina kasu honetan lehen pertsonan, berezko jardun bat izango balitz bezala; bigarrenik eta arrazoi jakin bat dela medio –Jakako gizonen pribilegioa, hots, hura errege izendatzeko lehentasuna–, ohiz kanpokotzat aurkezten den pribilegio baten emakida, hau da: pribilegioa (*illam meliorem libertatem*), norena den pribilegioa (*illi burguenses de Montpesstler*), zeina ondoren puntualki adierazten baitu (*et est talis*). Hura idazketa-batasun nabarmeneko bi paragrafotan soilik garatzen da, baina, hala ere, etenda geratzen da, tartean berrespen-klausula bat agertzen baita, zeina berriz ere agertuko baita, ez termino berberetan, baizik eta dokumentu osoari erreferentzia eginez, leku egokian, xedapen-zatiaren amaiera gisa. Horren ondoren, eskatokoloarenak daude, jardun dokumentalak ezarritako ordenari guztiz jarraitu gabe; izan ere, datazioa emailearen izenpea baino lehenago agertzen da. Dataziorako formularen, Antso Ramiritzen dokumentuan bezala, beharrezko

⁴² Ramiro II.aren dokumentuen ezaugarriak buruz, vid. CANELLAS, Á., *La cancellería*, *op. cit.*, 32-40 or.

⁴³ Nabarmena da kopistaren lapsusa, *presentis* terminoa ez baitu idazten.

⁴⁴ Berriz ere ageri da paragrafo honetan kopia-akats bat, seguru asko *tollo* hitza irakurtzean egin-dakoa.

adierazpen kronologikoak ageri dira, erregearen ohiko formula eta aipamen topiko eta pertsonalak saihestuz. Aitzitik, dataren adierazpena zinez da osoa; izan ere, inkarnazioaren eta aro hispanikoaren zenbaketa bikoitzaren ondoren hila (otsaila) eta eguna adierazten dira (hil horretako hirugarren idusa; hots, kristau-egutegiko 11. egunari dagokiona). Edonola ere, datu horiek ez dira zuzenak, dokumentuan jasotako ekintzari nahiz haren formulazioari dagokionez. Adierazitako dataren akatsa agerikoa da; izan ere, Borrokalariaren heriotza urte horretako irailaren 7an gertatu zen⁴⁵. Eta, hori dela eta, kritikak bi aukera planteatu ditu hori azaltzeko: aroaren adierazpenean akats sinesgarri bat egotea; beraz, dokumentua 1135ean kokatu beharko litzateke. Edo, bestela, kopista nahastu izana erudian zegoen hila laburtzapena interpretatzerakoan, hau da, *otsaila* irakurtzea *iraila* jartzen zuen lekuan⁴⁶. Hala ere, adituei ez zaie deigarria egin, eta ez da erraza errege-eskribautzako dokumentu batean erabilitako formula justifikatzea; izan ere, zenbaketa bikoitzaren formulaz gain⁴⁷, hilaren eguna ere aipatzen da, eta hori Aragoiko dokumentuetan geroago arte erabiltzen ez zen formula da. Halaber, kontuan hartu behar da formula hori ez dela ageri *Libro de las cadenas* liburuko gainerako errege-dokumentuetan, baina bai, ordea, apezpiku-kantzelaritzako dokumenturen batean⁴⁸. Erregearen izenpearen ondoren, pertsona ugari izena ageri da (hogeita bost), *actio* horren lekuko gisa aurkezten direnak, iraganaldian jarduten baitira guztiak *-fuerunt testes-*; hala eta guztiz ere, hura gainetik irakurtzea nahikoa da hautemateko aipatutako bederatzi pertsonak, guxtienez, datazio pertsonaleko klausula batean egon beharko luketela, eta, hain zuzen, dokumentuan ez dago halakorik⁴⁹. Azkenik, Pedro eskribak dokumen-

⁴⁵ Borrokalariaren testamentuari eta heriotzari buruz, MARTÍN DUQUE, Á. J., Navarra y Aragón. *Historia de España de Menéndez Pidal dirigida por J. M^a. Jover Zamora, IX. La Reconquista y el proceso de diferenciación política (1035-1217)*, Madril: Espasa-Calpe, 1998, 309-310 or.

⁴⁶ UBIETO, A., *Jaca, op. cit.*, 65. or. Nolanahi ere, bi datak dokumentuko zerrenda nominalarekin bat datoz, eta horiei esker 1134ko irailaren –ordurako Teresa bizkondesa ageri da Uncastilloko tenentziaren titular gisa– eta hurrengo urteko abuztuaren –non Fortun Galindezek Huescako izateari uzten baitio– arteko aldiak koka daiteke (cfr. UBIETO, A., *Los «tenentes» en Navarra y Aragón en los siglos XI y XII*, Valentzia: Anúbar, 1973).

⁴⁷ Ramiro II.aren korpus dokumentalean ikus daiteke zenbaketa bikoitza erresumaren emakida Petronila andrearen eta Bartzelonako kondearen mesedetan egiteari buruzko dokumentuetan soilik ageri dela.

⁴⁸ Formula horren ezaugarria da hila bi aldiz aipatzen dela; izan ere, hura eguna baino lehen egoiteak behartzen du gero berriz ere aipatzea egunaren determinatzaile gisa. Oso antzeko bat erabiltzen da García de Gudal apezpikuaren dokumentu batean –dokumentu horren bidez Soduruelgo artxidakonozaren donazioa egiten zaio Jakako elizari) (ed. UBIETO, A., *Jaca, op. cit.*, 31. zk., 90-91 or.).

⁴⁹ Oro har, aldi horretako Aragoiko dokumentuek ez dute lekukorik izaten, eta, izatekotan, zerrenda ez da luzea izaten. Apezpikuen eta tenenteen enuntziatua klausula kronologiko pertsonalean sartu ohi da, kargua egikaritzen den lekuari dagozkion beharrezko identifikazio-erreferentzia topikoak aipatuz. Dokumentu honetan ikus daiteke Huescako apezpikuaren aipamenaren ondoren toponimo guztien au-

tua izenpetzen du berari dagokion zeinu pertsonalaz. Eskriba horren jarduna 1129-1138 aldian garatu zen⁵⁰.

Ugariak dira dokumentu honetan aurkitu daitezkeen anomaliak, eta, horrenbestez, zaila da, ezagutzen den forman behintzat, errege-eskribautzan sortutako tresna baten kopiatzat jotzea. Halaber, zenbait klausulatan egindako zuzenketak eta adierazpen kronologikoarekin aipamen pertsonalak egokitu direla –arestian aipatutako zenbakizko akatsa eta irakurtze-akatsa salbu– kontuan izanik, Ramiro II.aren benetako dokumentu bat oinarri hartuta egindako dokumentua izan daitekeela ondoriozta daiteke.

Hau izan al daiteke dokumentu luzea? Ikuspuntu formal batetik, dokumentu honen hutsune handiena eskatokoloaren klausulen absentzia da, baina, aldiz, emaiaren ondorengo izenpea ageri da. Absentzia horren justifikazio posibletzat jo daiteke *Libro de las cadenas* liburuan aurrekoaren jarraian jasota dagoela, eta, agian, horrek eraman zuela liburuaren kopista, antzekoak izateagatik, klausula horiek dokumentuan ez sartzer; halaber, izenpeak beste dokumentuan agertzen ez zirelako jarriko zituen.

Kontserbatutako zatiari dagokionez (egia bada noizbait ez zela eskatokoloa falta izan), nabarmentzeko modukoa da haren koherentzia handiagoa formari eta edukiari dagokionez, bai hitzaurrean, bai garapen normatiboan. Hortaz, hartan ez dira lehenengo dokumentuan ikus daitezkeen kopia-akatsak hautematen⁵¹, ez eta erregearen jardunaren irismenari dagokion han adierazitako inkoherentzia ere, hor ez baita gertatzen egin nahi zen foru txar batzuen indargabetzea. Bestalde, dokumentu honen hitzaurrea edota haren bertsio fidagarri bat une jakin batean Lizarran erabili izana froga ona da ondorioztatzeko erlatiboki gertukoa den garai batean guztizko autoritatea izan zuela. Era berean, edukiaren garapenaren koherentzia eta edukiak hitzaurrearekiko duena nabarmenak dira. Erregeak bere aitaren foruak berresten ditu, eta berariaz zerrendatzen ditu. Ezin dugu jakin errege-dokumentu originalean horrela zen edota dokumentuaren garapena ez zen errege-eskribautzaren lana izan, baina, edonola ere, ez da hautematen idazketa-inkongruentziarik edo dokumentuaren osotasunarekin bat ez datorren erreferentziarik. Forua aurkeztu eta gero, Ramiro II.ak beste pribilegio batzuk ematen ditu. Pribilegio horiek graziaren eraginez ematen ditu, arrazoi pertsonaletan oinarrituz, zeinak are egokiagoak ziren kasu horretan, bere eliz-

rretik *in* preposizioa jartzen dela, eta ez zerrendaren lehen zatian bezala, non *de* preposizioa erabiltzen baita, pertsonaren identifikazioa bere jatorriaren bidez osatzen denean. Era berean, apezpikuen izenarekin ez hastea eta apezpiku eta tenenteak zerrendaren amaierako zatian agertzea nahikoa zantzu da ondorioztatzeko zerrenda hori elementu desberdinetan oinarrituz osatuta dagoela.

⁵⁰ Cfr. CANELLAS, Á., *La cancellería*, *op. cit.*, 40. or.

⁵¹ 43. eta 44. oharretan nabarmendutakoak.

gizon-kondizioa eta azkenaldian gertatutakoak kontuan izanik. Hori dela eta, Alfontso I.aren heriotzaren unean erresuman lezda ordaintzeko salbuespen orokorraren pribilegioa, zeina, bestalde, ez baitzen ohiz kanpoko dokumentu nafar-aragoarretan⁵², Jakan finkatutako biztanleei zuzenduta zegoen, etorkizuneko proiektioarekin eta leku haren populaketa bermatzeko helburuarekin. Klausula horren idazketak, erreferentziako diferentziak salbu, identitate literal nabarmena erakusten du bi dokumentuetan; hainbestearinokoa da, ezen han ezarritako denbora-mugari buruzko paragrafoaren desegokitasuna –Borrokalariaen heriotza– gainditzeko ez da paragrafoa ezabatzen, baizik eta hura errege-berrespen desegokiko klausula baten bidez ordeztan da, arestian azpimarratu den bezala, sartuta agertzen den lekuagatik eta dokumentuaren osotasuna kontuan izanik, asko errepikatzen delako. Lezdaren gaineko pribilegioari errege-bainuen errenten donazioa gehitu behar zaio, bai eta hiribildua harresitzeko erabiliko den baratza baten erdiaren donazioa ere. Jarraian erregearen berrespena eta izenpea datoz. Ez dakigu jatorrizko dokumentua ohiko klausula protokolarioekin osatu zen, baina litekeena eta gertagarria da, dokumentuaren zehaztasun formalari eta koherentziari erreparatuta. Dokumentu honen edukiak aurrekoak 1134. urtean kokatzen duen ekintza berari buruz hitz egiten duenez, logikoa dirudi data hori egotea dokumentu honi ere; nolana ere, azken klausuletako bi aipamenek, eremua modu egonkorrean finkatzeko interesak, hau da, etxebizitza habitatuaren eskakizunak, eta ondoren datorren donazioaren defentsarako xedeak pentsarazten digute hiribildua une horretan zailtasun handiak bizitzen ari zela, agian, Nafarroarekin izandako lehen borroken ondorioz eta Burnaoko sutearen ondorioz, zeina hirigune zaharraren harresietatik kanpo baitzegoen⁵³. Hori horrela balitz, 1134. urtea baino geroagoko garai batean kokatuko ginatke, errege monjearen erreinaldiaren azken urteetan, hain zuzen. Horrelako zehaztapen kronologikoen interesa pizten dute ikuspuntu dokumentaletik lehen aztertutako dokumentuaren izaera apokrifoa agerian uzten duten neurrian; izan ere, dokumentu hori xede jakin baterako egin izana posible da, beste honen egokitzapenetik abiatuta –aurredatazioa barne⁵⁴–. Dirudienek, xede hori izango litzateke Jaka erregearen babesa bereziki merezi zuen leku gisa aurkeztea (ezin baita espero besterik bere autoritatea ere zor duenarengandik), eta, horrenbestez, erresuman hain ohiz kanpokoak ziren pribilegioak emanez erantzun zuen erregeak. Pribilegio horiek

⁵² Vid. *infra* III, 5.1.2.

⁵³ Vid. LACARRA, José M^a, Desarrollo urbano de Jaca en la Edad Media, *Estudios de la Edad Media de la Corona de Aragón*, 4 (1951), 139-155 or.

⁵⁴ Horrek, gainera, esan nahiko luke data horretako (1134/35) beste dokumentu bat erabili zela lekukoan zerrendan agertzen diren azken izenak gutxienez sartzeko; eta hori hipotesi gisa apur bat behartua den arren, azaldu lezake lekukoan zerrenda gisa aurkezten den zerrenda horren eraketa bitxia.

onenak bezala aurkezten dira, bortuz bestaldeko hiri garrantzitsu batean dituzte-
nen parekoak, Montpellierrren hain zuzen. Konnotazio bat gehiago beste batzue-
kin batera klausula formaletan –foru txarrak indargabetzeari buruzko aipamena,
zenbaketa bikoitzeko datazioa–, eta horren aurrean behatzaileak ezin dio utzi
Antso Ramiritzi egotzitako dokumentu foralean pentsatzeari.

3. Alfontso II.aren emakida

Dokumentu honek jasotzen du Alfontso II.ak Jakako zuzenbide tradizio-
nala berresteko egindako jarduketa bat, zeina, dirudienez, zehazten baita jarraian
ageri den xedapen multzoan, erlatiboki zabala berau (30 klausula, haren edi-
toeren arabera). Tresna horrek adituen artean piztutako interesaren jatorria ez
dago bereziki arau horien irismenean, baizik eta hitzaurrean egiten diren baieztapen-
tapenetan. Baieztapen horiek hiribilduaren berezitasunari buruzkoak dira, bes-
te behin ere, baina kasu honetan ez dago erregearekin lotuta –hiribilduarekiko
izan ditzakeen debozio edo obligazioak–, baizik eta hiribilduak berezkoa duen
zerbaitekin: haren zuzenbidearekin. Zuzenbide horren ezaugarria da bere indar-
-eremuaren hedapena (*tocius ille terre que est ultra serram*), bai eta haren per-
fekzio bitxia ere, zeinak kanpoko jendearen arreta erakarri baitzuen. Eta ez dira
funsgabeko esamesak edo baieztapenak; erregeak berak badu horren berri (*scio
enim*), berak badaki hori gertatzen dela (*in Castella, in Navarra et in aliis terris
solent venire Iaccam per bonas consuetudines et fuoros addiscendos et ad loca
sua transferendos*). Horrelaxe adierazi zuen monarkak, eta horrelaxe onartu da,
inolako erreserbarik gabe⁵⁵. Baina, hori horrela gertatu al zen? Kasu honetan ere,
kritika diplomatikoa izango da kontuz ibiltzeko ohartaraziko gaituena.

Testigantza hau ere *Libro de la cadena* liburuan jasotako haren transkrip-
zioari esker iritsi zaigu; horrenbestez, haren kalitate dokumentala epaitzeari da-
gokionez, klausula formal eta normatiboen kritikatik erator daitezkeen elemen-
tuak baino ez ditugu eskura. Dokumentua Bernat Desvall errege-notarioak izen-

⁵⁵ Nolanahi ere, erregearen baieztapena eta errealtate dokumentala bateratzeko zailtasuna nabar-
mendu izan da. Dokumentu honen lehen editoreak (MUÑOZ Y ROMERO) hau adierazi zuen, ironia
puntu batez: «Cuando de todas partes acudían a Jaca a aprender sus usos y costumbres, es de presumir
hubiese además de estos fueros, otros muchos que no estuviesen escritos y formasen su derecho consue-
tudinario. Si en aquella época no existía en Jaca otra legislación foral que la escrita, no tenían en verdad
necesidad de ir a estudiarla los castellanos y navarros» (cfr. *Colección de fueros municipales y cartas
pueblos de los reinos de Castilla, León, Navarra y Aragón*, Madril: José María Alonsoren inprimategia,
1847, 243. or.). Bestalde, Mauricio MOLHOK, Jakako foruaren kodexei dagokienez, irizten dio baieztapen
horrengatik ez balitz badaudela zantzuak kodex horiek Aragoiko lautadako udalerrietan sortu
zirela uste izateko (MOLHO, M., *Difusión del derecho pirenaico (Fuero de Jaca) en el reino de Aragón.
Boletín de la Real Academia de Buenas Letras de Barcelona*, 28 (1959-1960), 303. or.).

petuta dago, eta haren jarduna 1184-1194 aldian dago erregistratuta⁵⁶; itxuraz, dokumentuak aldi horretako diplomen ezaugarriak ditu. Hitzaurrea laburra da. Baditu Jainkoari egindako inbokazio-klausula nominalak eta dokumentatutako ekintzaren jakinarazpen-klausulak, non erregeak –bere izenez eta dagozkion tituluez izendatua– dokumentuaren irismena adierazten duen –onespena, emakida eta antzinako ohitura eta foruen berrespena– eta zer inguruabarretan garatzen den ere. Halaber, adierazten da pertsona multzo batek kontseilari gisa parte hartu zuela (*multorum bonorum virorum*), eta horietako lau izenez aipatzen dira, eta horietatik biren kargua adierazten da. Azken lerrotan, erregeak bere jardunaren zioa azaltzen du, hau da, zuzenbide horren garrantziaz eta transzendentziaz konturatzen dela berau. Eskatokoloko klausulek ez dute etenik multzo normatiboarekiko. Errege-berrespenari dagokion ohiko klausula falta da haietan; izenpea badago, eta kasu honetan ere dataren atzean ageri da. Data, hitzaurrearekin bat etorritik, *actio*ari buruzkoa da, eta ez haren *conscriptio*ari buruzkoa. Aragoiko eran dago adierazita: adierazpen topiko eta kronologikoaz osatuta dago, hilaren eta aroaren aipamenarekin, eta, jarraian, lekukoaren zerrenda nominal batean eraldatzen da zalantzarik gabe jatorrian erregearenak hasten zuen datazio pertsonaleko formula zena. Horrenbestez, zerrenda horren lehenengo tokian erregea bera ageri da, zeinak bere burua lekuko gisa aurkezten baitu, bere izena aipatu gabe, baina bere mendeko lurraldeak aipatuz⁵⁷. Errege-zeinuaren aposizioaren ondoren, lekuko-kondizioa (*teste*) ere egozten zaien pertsonen aipamena ageri da –hori, egiazki, singularrean egiten da–. Lehena Huescako apezpikua da⁵⁸, eta, jarraian, zenbait tenenteren izena ageri da, haietako bakoitzaren mendeko lurrak adieraziz, bai eta gorteko beste karguren bat ere. Aipatutako apezpikuaz gain, erregeari aholkua ematen dioten eta hitzaurrean aipatzen diren beste hiru pertsonak ageri dira. Horretan eta gainerako erreferentzia pertsonaletan ez da hautematen goian adierazitako datarekiko anakronismorik⁵⁹. Errege-notarioaren izenpetzeko formulak ez du erakusten anomalia-zantzurik. Edonola ere, aipatutakoak nahikoa

⁵⁶ Vid. TRENCHS, J., *Las escribanías*, *op. cit.*, 64. or.

⁵⁷ Paragrafo horren formulazio nahasgarriaren ondorioz, Ubieto irakasleak puntuazioa oker erabili du, eta, hori dela eta, inkoherentzia areagotu egiten da.

⁵⁸ Horrela aipatzen da hitzaurrean; hemen, berriz, Huesca-Jakako egoitzaren buru gisa ageri da. Dokumentuan, apezpiku-aulki horretako apezpikuak intitulatzeko moduari dagokionez, argigarria da egiaztatzea –Lacarrak bildutako Ebro ibarreko dokumentuetan behintzat– nola Ramiro II.aren dokumentuetatik aurrera apezpikuak Huescako apezpiku gisa soilik intitulatzen diren. Halaber, *Libro de la cadena* liburuan jasotako dokumentuetan ikus daiteke errege-dokumentuetan egoitza horretako apezpiku bezala ageri direla, baina eliza-dokumentuetan, berriz, aipamen bikoitzarekin ageri direla.

⁵⁹ Egia da zenbait aipamen oso doituak direla; Jimeno Corneliari (Ejea) dagokionez, Agustin UBIETOK dokumentu bakarrean erregistratzen du pertsona hori, hain zuzen ere, urte horretako azaroan datatutakoan (cfr. *Los «tenentes»*, *op. cit.*, 137. or.).

adierazgarriak dira ondorioztatu ahal izateko dokumentuari, ezagutzen den moduan, zenbait aldaketa egin zitzaizkiola eskatokoloko klausula horietan.

Baina ez soilik haietan. Edukia irakurriz ere haren osaeraren konplexutasuna ikus daiteke; izan ere, zenbait arau bereizi daitezke: hasierakoak eta amaierakoak (§§ 1-8 eta 26-30). Haietan, erregea berehala dago presente –*In primis laudo et confirmo* (§ 1), *mille solidos nobis pectare* (§ 26), *et deffensione nostra suscipimus* (§ 30)–, eta, hori dela eta, ez dago zalantzarik dokumentuaren jatorriari dagokionez. Aitzitik, erregeari egiten zaizkion gainerako 17 aipamenak hirugarren pertsonan dira –*merino regis, domno regi, in manu domino regi*–, eta, hori dela eta, pentsa daiteke jatorri desberdinekoak direla, ondorioztatzeraino jatorria hiribilduko autoritateen gaitasun estatutariotik eratorria dela. Hori horrela islatzen du haietako zenbaiten hasierako enuntziatuak –*De latronibus vero statuimus* (§ 9), *De apelitit ita statuimus* (§ 18)–; horiek, hain zuzen, arau multzo bat bateratasun tematiko batean kokatzeko balio duten errubrikak baino ez dira. Arau horiek, jatorrian, mota horretako iruzkin normatibo bat edo batzuen zati izan daitezke, askotariko gaiei buruzkoak, lehen aipatutakoei buruzkoak, bai eta ordena prozesalari (§§ 21, 22, 25) eta trashumantzia-erregimenari (§§ 16, 17, 23-24) buruzkoak ere (zeinak orain elkarren ondoan jartzen baitira, eta, halaber, marjina-glosaren bat ere ageri da⁶⁰). Horiek guztiak Alfontso II.aren jatorrizko pribilegioaren klausula normatiboekin bateratzean, izaera horretako testu normatibo beraren osagaitzat ageri dira. Jatorri eta izaera desberdinetako arauak fusionatzea dela eta, sortzen den zalantza da ea izaera estatutariokoak bat datozen erregeak berresten duela dioen Jakako zuzenbide tradizionalarekin; nolahi ere, hori horrela izanda ere, ez dirudi haien formulazioa lehenago gertatu zenik, ez eta Alfontso II.aren dokumentuaren emakidaren unean ere, dokumentu horretan sartuak izan zitezkeen; izan ere, horrela izan balitz, erregeari egindako aipamenetako inkohereziaz konponduko ziratekeen. Era berean, beste zalantza bat ere sortzen da: ea bateratze horrek irismen normatiboa izan zuen soilik, hau da, ea bateratze hori, eguneratuz, errege-berrespenaren ekintzari eduki puntual eta zehatza emateko egin zen, edo ea bateratze horrek pribilegioaren jatorrizko tes-

⁶⁰ Hori izan daiteke 20. arauaren jatorria; arau horretan ofizial (*consules* deituak) batzuen hautaketari buruz hitz egiten da, Jaka eta beste hiribildu batzuen zaintza eta defentsarako. Arau horrek, itxuraz, ez du harremanik abizenari buruzko aurrekoekin, salbu eta instituzio baten eta bestearen helburuari dagokionez. Inperatiboan formulatuta badago ere, *tamen* adbertsatiboarekin hasten da, eta, horrenbestez, ondoriozta daiteke aurreko testuari buruzko ohar bat dela. Bestalde, Aragoiko tokiko magistratura bati *consules* terminoa aplikatzea –ohikoagoa nomenklatura katalanean– harrigarria egiten da testuinguru horretan; are gehiago, kontuan hartzen badugu segur aski erreferentzia egiten dion instituzioa, juratuena, 1212an ezarri zuela Jakan Petri II.ak (cfr. UBIETO, A., *Jaca, op. cit.*, 33. eta 34. zk., 95-98 or.). Hala ere, esan behar da termino hori, era berean, beste dokumentuan ere ageri dela, Petri II.ak asteko azokaren emakida egiteko dokumentuan hain zuzen (1197ko azaroa).

tuari eragin zion, kanpoko arauen gehikuntza soil bat izateaz gainera. Egindako analisi diplomatikotik ondorioztatzen da eskatokoloko klausuletan zenbait aldaketa egin zirela, baina litekeena da aldaketa formal hutsak baino zabalagoak eta transzendentzia handiagokoak izatea. Protokoloko klausulak aztertzean, harrigarria egiten da diskurtsoan erregearen jardunaren zioen azalpenak duen kokapen epigonala; are gehiago, kontuan izanik erreferentzia topiko baten jarraian kokatuta dagoela, zeina, era berean, kontakizunean legokion lekutik bereizita ageri baita. Hau da esaldia: *antiquas Iacce consuetudines et fuoros, et tocius ille terre que est ultra serram, versus montana Iacce, scio enim...* Sintaxia apur bat behartua da, baina ez luke arreta gehiegi eskatuko, ez balitz aurrerago, zazpigarren paragrafoan, antzeko modu batean erreproduzitu: *Preterea homines de Iacca caveant caucius negociari et de tota illa terra*. Baina ez da horrela, ordea, erreferentzia hori beste aldi batean ageri denean ere –§ 4: *Si autem fuerit extraneus qui moriatur Iacce vel in illa terra ultra serram...*–. Kasu horretan, testuinguru normatiboan guztiz integratuta ageri da eta Guarako mendilerroaren bestaldeko lurrekin (*transierra*) bat dator kokapen espazialari dagokionez, eta, hain zuzen, hori ez da gertatzen lehenengoan, non kontrako norabidean ulertu behar baiten, hau da, hegoaldetik iparraldera. Hori ulertzeko zailtasunaz konturatu behar izan zuen dokumentuaren egileak; izan ere, ikuspuntua zehaztera behartuta ikusi zuen bere burua (*versus montana Iacce*)⁶¹. Testuinguruari dagozkion irregularitasun horiei erreparatuta, honako susmo hau planteatu behar da: jatorrizko testuaren aldaketa horiek Jakako zuzenbidearen indar-eremua zabaltzeko helburua dute, eta, zergatik ez, zuzenbide horrek erresumaz harago duen transzendentzia azpimarratzekoa. Gainontzean, batzuei zein besteei ondasunak libreki edukitzea eta salgaien trafikoa egiteko askatasuna bermatzen dieten arau horien edukia eta irismena –jatorrizko dokumentuak, seguruenik, barne hartuko zituenak– erabat egokitzen dira tokiko inguruabarretara, kontuan izanik Europako komunikazio-eta merkataritza-bideetan Jakak garai hartan zuen garrantzia (1187), eta, halaber, erregeek, pribilegiozko arauen emakiden bidez, biztanleak finkatzeko eta beren erresumetako ekonomia garatzeko zuten interesa aintzat hartuz⁶².

⁶¹ Ez da horrela izan historialarientzat; izan ere, 16. eta 23. klausuletan *Yspaniari* egiten zaion erreferentziak bide ematen du ulertzeko dokumentuak *Montaña* edo jatorrizko Aragoi eta lurralde konkistatu berriak (Espainia) bereizten dituela. Vid. RAMOS LOSCERTALES, J. M., *Fuero de Jaca (última redacción)*, Bartzelona: Bartzelonako Unibertsitatea, 1927, XXII-XXV; MOLHO, M., *Difusión*, 292-293; LALINDE, J., *Los fueros de Aragón, op. cit.*, 26. or. Nire ustez, bi erreferentzia horiek lurralde berari buruzkoak dira, mendilerroaz bestaldeko lurri buruzkoak, eta horrek berretsi egiten du dokumentu honen osaketa konplexua hainbat elementutan oinarrituta egin zela.

⁶² Hala, hemen Alfontso II.ak emandako arauen antzekoak eman zituen urte batzuk geroago, Leon-go izen bereko erregeak. (vid. VÁZQUEZ DE PARGA, L., LACARRA, J. M., URÍA, J., *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela. III*, Madril: CSIC, 1949, 77. ap. zk.).

Berriro ere, foruak berresteko dokumentu bat dugu esku artean, berariazko interesez luze eta zabal berregin izanaren zantzu nabariak dituena; nolana ere, aurrekoak bezala –Ramiro II.arena salbu, zeinak Montpellier aipatzen baitu– oinarri dokumental fidagarrietan funtsatzen dela dirudi.

4. Kritika diplomatikotik eratorritako ondorioak

Berregite horietan erabilitako teknikari dagokionez, guztietan balizko jatorrizko dokumentuetan aldaketak egin izanaren zantzuak ikus daitezke. Aldaketa horiek honela laburbil daitezke: batetik, datazio-klausuletan kanzelaritza-forma katalanak erabiltzeko joera Aragoiko forma dokumentalak erabili beharrean –zenbaketa inkarnazioaren bidez egitea, baina hemen aro hispanikoari lotuta; formula pertsonala lekukoan zerrenda batean eraldatzea–; eta, bestetik, jatorri bisigotikoa duen zehapen espiritualaren klausula, garai eta inguru haietan ohi-koagoa zena elizako dokumentuetan. Beste alde batetik, hitzaurreen irakurketa bateratua dela eta hauteman daiteke asmoen arteko sintonia bat sekuentzia-kadentzia batekin: erregeak Jaka *civitas* kategoriara goratzen du, Jakak erregearen aldeotasuna du, Jaka aitortua izan da bere zuzenbidearen bikaintasuna dela eta, eta hori erregeak egin du berariaz, bai eta Gaztelako eta Nafarroako jendeak nahiz beste lurralde batzuetakoak ere; izan ere, agian, haraino hedatu nahi zen Antso errege zaharraren ahotsa. Itxura guztien arabera, ez ziren izan dokumentuetan aldaketak egin izanaren zenbait kasu; aitzitik, jardun bateratu bat izan zela dirudi: tresna desberdinetan ageri da, baina guztiak daude hiribilduko zuzenbidearekin lotuta eta guztiek dute lotura estua erregearen pertsonarekin.

Egindako kritika dokumentalak nahiko datu adierazgarriak eskaintzen ditu; haien bidez, ikus daiteke nola berregin ziren dokumentu foral horiek, jatorrizko eta izaera anitzeko iruzkin normatiboak bateratuzetik abiatuta, eta, era berean, oinarritzko tresna jakin batzuetatik hartutako egitura formalera egokituta (eta, orobat, interes jakin batzuetara). Baina prozesu horri buruzko beste galdera batzuk argitzeke daude oraindik: noiz gertatu zen, nor egin zuen eta zergatik egin zuen.

Beranduenez zer datatan egin zen jakitea ez da zailegia. Batetik, dokumentu guztien kopiak *Libro de la cadena* liburuan ageri direnez, 1283. urtea *ad quem* termino gisa har daiteke. Bestalde, *a quo* terminoa, berriz, gutxienez 1187. urtean koka daiteke, aztertutako dokumentuetan azkenak data hori baitauka, eta, halaber, oso litekeena da 1197. urtearen ostekoa izatea, izan ere, Antso Ramiritzen foruan Petri II.ak data horretan ezarritako kleriko eta infantzoiei onibarrak saltzeko debekuari buruzko araua dago jasota⁶³. Ia mende bateko denbora-tarte

⁶³ Cfr. *supra* 14. oharra.

horretan zehaztasun handiagoak egitea hipotesiaren eremuan sartzea litzateke, eta eremu horretan ziurgabetasunak eta zuhurtzia dira nagusi. Horrenbestez, Jakako foruak berretsi zituzten ondoz ondoko erregeek erabilitako formulai erreparatzea argigarria izan daiteke hurbiltzeko bide gisa. Hori gertatzen da Ramiro II.aren berrespenarekin. Berrespen horretan erreferentzia pertsonal zehatza egiten da (*illos bonos fueros quos pater meus Sancius rex... missit in Iacca*); izan ere, jarraian datozenak anbiguotasunez eta orokortasunez daude formulatuta (aipatzen dira *antiquas consuetudines et fueros*⁶⁴) edo zehaztu egiten dira. Nolanahi ere, oraingoan ez dira zehazten izaera pertsonaleko erreferentzia baten bidez, baizik izaera instrumentaleko erreferentzia baten bidez; izan ere, erregearen jarduna berariaz zuzentzen zaie hauei: *illos fueros et illas consuetudines... prout in instrumentis factis et auctorizatis vobis ab illis antecessoribus meis*⁶⁵, edo, bestela –modu zehatzean hemen ere, baina nabarmen zabalagoan–, honela: *omnes foros et consuetudines ac franchitates quos et quas antecessores nostri vobis concesserunt, et sicut in cartis vestris plenius continentur, et sicut melius hactenus cum cartis et sine cartis habuistis et rationabilibus posseditis*⁶⁶. Horrenbestez, dokumentu horien irakurketa jarraituak erakusten du une jakin batetik aurrera (1197. urtea) soilik onartzen dela berariaz badirela izaera desberdineko arauak jasotzen dituzten testu normatiboak –*fueros et consuetudines*–, eta horiek, jatorria errege-kantzelaritzan izan edo ez izan, erregeen behar bezalako berrespena dute –hori esaten da behintzat–. Hori dela eta, ezin da oharkabean pasa Petri II.aren dokumentu batean ageri den adierazpena (Jakan, 1208ko ekainaren 16an datatua⁶⁷). Adierazpen horretan, monarkak, testuinguru horretan eta aurrekaria ezarri gabe, Jakako *cives*-en (*maioribus et minoribus*⁶⁸) eskaerari erantzunez, berrespen hau egiten du: *cartas vestras omnes super quolibet facto vel casu vel negocio vobis a predecessoribus nostris factas atque concessas vobis omnibus supradictis et cuncte generationi vestre laudamus, concedimus et confirmamus, sine aliqua retentione ad plenum, et presentis scripti patrocínio comunimus per nos et successores nostros et eas bonas, veras, legales et omni vitio et falsitate carentes perpetuo iudicamus, volentes statuantes atque mandantes eas omnes in omnibus et per omnia obtinere robur et vigorem perpetue firmitatis, salva tamen fidelitate nostra*. Ohi ez bezalako emakida da hori, nahiz eta eskertuta dagoen errege batena den; izan ere, hori egiteak berarekin dakar erregeak onartzea hain

⁶⁴ Alfontso II.aren pribilegioa, 1187ko azarokoa (*supra* II, 3-n aipatua).

⁶⁵ Cfr. *supra* 12. oharra.

⁶⁶ Cfr. *supra* 13. oharra.

⁶⁷ UBIETO, A., *Jaca, op. cit.*, 30. zk., 87-89 or.

⁶⁸ Cfr. *supra* 35. oharra. Ramiro II.aren berrespen-dokumentuetako hitzaurreetan eta Antso VI.aren Lizarrako foruaren berrespenean ageri dira *maioribus et minoribus* terminoak.

ospe zalantzarria errege-eskribautzetan egindako dokumentuei egozteko aukera. Eta are ohiz kanpokoagoa da kontuan hartzen badugu itxuraz zuzentasunez egindako dokumentu batean dagoela eta 1203. urtetik errege-notarioa denaren izenpea duela: Ferrer⁶⁹. Notarioaren izenpean haren ohiko bi formula batera erabiltzen dira⁷⁰, eta formula horiek datazio-klausularen ondoren klausula normatibo bat sartu dela adierazten duen aipamen batek bereizten ditu; hori dela eta, susma daiteke aipamen hori nahiz aipatzen den araua jatorrizko dokumentuari gerora gehitu zitzaizkiola, eta, hortaz, horrek atea zabalik uzten dio beste zenbait aldaketa egin izanaren aukerari, hala nola arestian aipatutako araua gehitzea, zeina zinez adierazgarria baita bai formulazioan bai irismenean, bai eta izaera formaleko beste elementu batzuk gehitzea ere, hala nola *cives* terminoa erabiltzea lekua adieraztean, zehapen espiritualaren hertsatze-klausula errege-hiraren eta ohiko zehapen ekonomikoaren aurretik jartzea, eta datazioan zenbaketa bi-koitzaren formula erabiltzea ere bai⁷¹. Beraz, ez dirudi ausartegia pentsatzea Petri II.aren dokumentuko aldaketa horiek aurrekoekin lotuta egon daitezkeela eta esku berak egin dituela, eta, horretarako, agian, jatorrizko dokumentuan aurretik egindako errege-jarduketak berresten dituen klausula edo paragrafo bat egotea baliatu dela. Hori egiteko, monarka horren pribilegioa erabiltzeak eta ez haren ondorengo Jakue I.arena, zeinak, halaber, zenbait alditan berretsi baitzuen Jakako zuzenbidea⁷², adieraz dezake berregite dokumental horiek haren erreinaldian egin zirela, eta, zehatzago esanda, 1208. eta 1213. urteen artean.

Dokumentu horiek jardun bateratu baten emaitza gisa hartzen baditugu –XIII. mendearen bigarren hamarkadakoak izateko nahikoa zantzurekin–, Jakari *civitas* maila emateko interesak –aztertutako lehen dokumentuan oso agerikoa da– indarra galtzen du prozesu horren kausa erabakigarri gisa eta, halaber, alde batera uzten du hura Elizarekin lotutako motiboekin azaltzeko edozein auke-

⁶⁹ Vid. TRENCHS, J., *Las escribanías*, *op. cit.*, 76-77 or.

⁷⁰ Lehenengoan honela dago erregistratuta: «Ego Ferrarius, notarius domini regis scribi fecit mandato ipsius et apponi post diem et annum linea ultima» (TRENCHS, J., *Las escribanías*, *op. cit.*, 81. or.); bigarrena sinpleagoa da eta ez dio aipamen espliziturik egiten dokumentuaren eskriturazioaren errege-mandatua erregistratzen den dokumentuko lekuari: «Ego Ferrarius... mandato ipsius loco dei et anno prefixis» (cfr. LEDESMA RUBIO, M. L., *Cartas de población*, *op. cit.*, 154.-156. zk.).

⁷¹ Dokumentu honetan zehapen espirituala erabiltzea bitxia egiten da; izan ere, errege horren erreinaldian hauteman daiteke formula dokumentalak bakunagoak direla, Aitzitik, ez da gauza bera gertatzen datazioari dagokionez; izan ere, Aragoiko dokumentuetan une horretan atzerakada bat gertatzen da aro hispanikoaren formularen erabileran, eta oso kasu bakanetan soilik erabiltzen da datatzeko elementu bakar gisa (TRENCHS, J., *Las escribanías*, *op. cit.*, 89. or.). Edonola ere, *Libro de la cadena* liburuan jasotako Petri II.aren zenbait dokumentutan ikus daiteke dokumentu bakar batean ere ez dela ageri zehapen espiritualaren formularik, ez eta aro hispanikoarena ez den bestelako erreferentzia kronologikorik ere.

⁷² Cfr. *supra* 13. oharra.

ra. Gauza bera esan daiteke haietan aipatutako eta nolabaiteko garrantzia duen prozesu politikoari dagokionez: Ramiro II.aren koroatzea Jakan. Gertakari hori bere balio sinbolikoagatik plazaratzen da; izan ere, testuinguru horretan garrantzi gutxi du bai politikoki, bai juridikoki. Dokumentu juridikoak direnez, badirudi horrela jarduteko arrazoiak izaera juridikokoa izan beharko lukeela, eta horri dagokionez, Alfontso II.aren dokumentuko hitzaurreak zenbait zantzu ematen dizkigu, Jaka zuzenbide-eskola gisa erakutsiz (zuzenbide propioa), eta aditzera emanez haren aitorten zabala bai Gaztelan, bai Nafarroan (agian, esan beharko litzateke batez ere Nafarroan). Puntu horretan eta XIII. mendearen bigarren hamarkadan, hau da, Nafarroako Erresuman Antso Azkarraren erreinaldiaren erdi-erdian, gauza ez al da izango Jakako agintariak haserre zeudela ondoko erre-suma hartako gora jotzeko helegiteak galdu zirelako? 1342an, oraindik ere, gai mingarria bazen juratuentzat, ez da sinesgaitza egiten egun batean egoera hori jasan zutenek nolabaiteko erreakzioa izatea, hala nola ikusi dugun hori, alegia, tresna batzuk sortzea eta haien bidez Jakako zuzenbidea autoritate gorenaz eta bermez janztea; horrela, hain zuzen, haren jatorriaren fidagarritasuna erakustez gain, une jakin batean aurkezteko eta alegatzeko balioko zuten⁷³. Beraz, auzotarren komunitate osoari zegokion gaia izanik, pentsa daiteke ekimena udal-arloan hasi zela. Hala ere, dokumentuen analisiaren arabera, badirudi egile materiala pertsona bakarra izan zela, ziur aski jurista bat, ez bazen Jakakoa hiribilduarekin lotura zuena, agian elizgizona, eta, edonola ere, trebakuntza zuena edo behintzat ezagutza zuena eta zalantzarik gabe harrituta zegoena Montpellierko Estudioarekin⁷⁴.

⁷³ Beste herri bateko forupean dauden auzotarren komunitateen gora jotzeko helegiteei horrela erantzutea ez da ez-ohikoa. Jakan gertatu zenaren antzeko zerbait gertatu zen –baina kontrako zentzuan– geroago Carmonan, nahitaez Sevillan egin beharreko helegitea saihestu ahal izateko. Horri buruz: BARRERO, Ana M^o, El fuero de Carmona. *Actas del I Congreso de Historia de Carmona. Edad Media. Congreso conmemorativo del 750 aniversario de la conquista de la ciudad de Carmona por Fernando III. 1247. Carmona (Sevilla), 22 al 25 de septiembre de 1997*, Sevilla: Centro de Estudios Ramón Areces, 1998, 387-413 or.

⁷⁴ Egilearen balizko elizgizon-kondizioa dokumentu horietan erabiltzen diren zenbait formula oinarriztat hartuta ondoriozta daiteke, hala nola zehapen espirituala, zeina garai hartan dokumentu ekle-siastikoetan soilik erabiltzen baitzen, bai eta arauren batean hauteman daitezkeen joera humanitarioa ere (vid. *supra* 38. oharra). Era berean, berregindako dokumentu horietan hauteman daitezkeen modu katalanek zalantzan jartzen dute ea horien jatorria Jakan dagoen; izan ere, lezdaeren gaian Montpellier aipatzeak, zeina ez baitator bat garai horretan ez eta lehenago ere eskualdeak zuen errealitate juridikoa-rekin, eta Jaka zuzenbide-irakaskuntzako giro batean kokatzeak garamatza pentsatzera jurista horrek, gutxienez, Frantziako hiri hori hurbiletik ezagutzen zuela. Montpellierko Eskolaren eta Zuzenbidearen jatorriari buruz, vid. MOR, C. G., *A l'origine de l'école de Montpellier: Rogerius ou Placentinus, Recueil de mémoires et travaux. Société d'Histoire du Droit et des Institutions des Anciens Pays de Droit Ecrit*, 6 (1967), 17-21; GOURON, A., *Autour de Placentin à Montpellier: Maître Gui et Pierre de Cardona, Studia Gratiana*, 19 (1976), 337-354 or.

Baina kritika diplomatikoaren emaitzek dokumentu foral horien historia argitzen lagundu badute ere, beren kabuz ez dira nahikoa Jakako zuzenbidearen eraketa-prozesua berreraikitze haren ibilbidearen lehen zatian. Horretarako, beharrezkoa da beste testigantza batzuetara jotzea, hau da, haren hedapenari buruzko dokumentuetara.

III. JAKAKO FORUAREN HEDAPENA

1. Testigantza dokumentalak

Asko dira Jakako foruaren hedapenari buruzko testigantzak Nafarroan, modu zuzenean edo bigarren mailakoan emandakoak, eta neurri txikiagoan Aragoi. Kontserbatutako dokumentuak kontuan izanik, Jakako zuzenbidearen hedapena erregearen ekimenez egin zen⁷⁵, eta Donejakue Bidearen inguruan gertatu zen birpopulaketa-prozesuarekin oso lotua ageri da, bereziki Nafarroan.

Jakako foruaren lehen emakidak –horrela onartzen da–, kasu honetan bezala, Antso Ramiritzi egozten zaizkio, baina, hala ere, ez dira hori frogatzeko beharrezko dokumentuak kontserbatu. Foru hori Zangozako jatorrizko burguak eta Lizarrak jaso zuten. Lehenengoaren kasuan, erreferentzia haren seme Borrokalariari dagokio, hark, seguru asko 1117an, bere aitak emandako foruak berretsi zituen. Ez zuen bere aita berariaz identifikatzen⁷⁶, ez orduan, ez eta hura burgu berriko biztanleei hedatu zienean (1122), ez eta forua Asini eman zionean ere (1132). Hala ere, mendearen erdialdera, 1158an, zalantzarako betarik ematen ez duen egintza batean ageri da identitate hori; izan ere, Antso VI.ak, burgu berriaren foruak berrestean, zera ezartzen du: *secundum vestrum forum de Iaka habeatis vestrum iudicium*. Gauza bera gertatzen da 1186an, herria *Pueyo de Castellón* auzora hedatzen denean; horretarako formula hau erabiltzen du: *el fuero de Jaca que an los francos del burgo de Sangüesa*⁷⁷. Antso erregeak Lizarrari forua eman

⁷⁵ Jakako foruaren emakidari buruzko dokumentu guztiak edo haiekin lotutakoak errege-emakida gisa erakusten dira, Leireko Ximeno abadearen 1173ko ekimenaren kasuan izan ezik. Kasu horretan Esa, Benasa, San Bizente eta Centulifonteseko herritarrak Leireko monasterioko antzinako atezaindegiaren aurrean ezarri eta Jakako foruaren arabera gobernatu behar ziren, eta monasterioak beretzat gordeko zituen labearen monopolioa eta Jakaren foruaren arabera erregeari zegozkion eskubideak; proiektuak ez zuen aurrera egin. Dokumentuaren argitalpena: MARTÍN DUQUE, Á. J., *Documentación medieval de Leire (siglos XI a XII)*, Iruñea: Vianako Printzea Erakundea, 1983, 332. zk., 429-430 or.

⁷⁶ Haren datazio-akatsari buruz: LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Pamplona, op. cit.*, 115. or.

⁷⁷ Pueyo de Castellongo foruaren datari buruz, vid. MARTÍN DUQUE, Á. J., Sancho VI de Navarra y el fuero de Vitoria. *Vitoria en la Edad Media. Actas del I Congreso de estudios históricos celebrado en esta ciudad del 21 al 26 de septiembre de 1981 en conmemoración del 800 aniversario de su fundación*, Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 1982, 6. oharra, 292. or.

izana haren izenkide Antso VI.a Jakituna erregeak hura berretsi zueneko dokumentuan ageri da soilik; hala ere, jakin badakigu 1122an Lizarrako herritarrek jada bazutela arau multzo bat, zeina Alfontso I.ak Garesko herritarrei eman baitzien. Arauen jatorriari buruz, ez da ezer esaten Lizarrako foruaren lehen emakida horretan, ez eta ondorengoetan ere. Zangozaren kasuan gertatzen den bezala, Lizarrakoaren jatorria Jakakoa zela uste zen, behintzat hura berretsi zen unean⁷⁸. Agian beti izan zen horrela, baina, nolanahi ere, azpimarratzekoa da Borrokariak bi hiribildu horiekiko izan zuen jarrera desberdina, zeinei beren zubenbidea berezkozat aitortzen baitzien; izan ere, herri sortu berri baten finkapena bilatzen zuenean, izan Aragoin –Ainsa eta Alquezarko burgu berria 1127an–, izan Nafarroan –San Zernin burgua Iruñean, 1129an–, ez zuen zalantzarik egiten Jakako forura jotzeko. Erresumak bereizi zirenean, haren hedapenak bere erritmo propioa izan zuen erresuma bakoitzean; Aragoin, Zaragozaren hiriburutzak eta haren birpopulaketa Sobrarbeko forupean egiteak Jakakoa bigarren garrantzi-maila batean utziko du. Handik aurrera, Erramun Berengerren ekimenez, Luesia (1154) eta Berdún (1158)⁷⁹ herrietara eta, Alfontso II.aren ekimenez, Pueyo de

⁷⁸ Hori ondoriozta daiteke; izan ere, Lizarrako foruaren hasieran Ramiro II.aren berrespeneko Jakako foruko klausulak erabiltzen dira, baina, Zangozan ez bezala, ez dago dokumenturik hori berariaz adierazten duenik. Lizarrako foruari buruz, vid. *infra* 80. oharra.

⁷⁹ Ez dakit foru hori argitaratua izan den. Edonola ere eta M^a Luisa LEDESMAK osatutako bilduman ez dagoenez, egokia iruditu zait hura transkribatzea:

Jaka, 1158ko martxoa

AHN. Kleroa, San Juan de la Peña, 714. karp., 20. zk.

In nomine sanctissimi et incomparabilis boni quod Deus est. Ego Raimundus, Dei gratia comes Barchinonensis et princeps aragonensis facio hanc cartam ingenuitatis sive franchetatis vobis populatibus de Berdun. Placuit mihi libenti animo et spontanea voluntate et propter amorem:

[1] Quod populetis in Berdun a fuero de Iacca et fichtis de bono corde.

[2] Facio vobis franchos et liberos sine cisso malo de Starrun in iuso et de cuello de Bailo en entro et de illo cuello de Sangorin en entro et de illo cuello de Baos en entro et de Mianos en suso et de Osoast en suso et de illa Cote en suso.

[3] Et de ista terminera en entro mando ad totos meos realencos qui ibi veniatis populare com vestro capomaso de ista pascha ad unno anno quod similiter sedeatis franchos et ingenuos et habeatis vestras hereditates liberas.

[4] Et non detis iuditio ad nullum hominem neque accipiatis in Berdun sicuti in Iacha.

[5] Et in vestro bobulares vetatos, si mataverit baca quod matetis eam, et si ovis ibi mataverit, similiter.

[6] Et mando de Larota et de la Rosselga et de Artasso, de istis tribus villis quod veniat illa decima ad Berdun, illo directo de episcopo exiende.

[7] Et de totos illos scalidos de ista terminera suprascripta quod veniat illa decima tota ad Berdun.

[8] Et si aliquis infanzon venerit populare ibi talem habeat hereditatem quam habeat unde venit.

[9] Et in ista terminera en entro et in toto meo regalenco mando quod talgetis mattera et ligna.

[10] Et mando adhuc quod habeatis ibi mercato in die iovis post illos martes mercato de Iacca.

Pintano (1162) eta Santa María de Uncastillora (1169) soilik hedatu zen. Aitzitik, ez zen gauza bera gertatu Nafarroako Erresuman, han askoz ere gehiago hedatu baitzen. Hedatze hori bertako matrize propioen bidez –Lizarrar eta Iruñekoa– gertatu zen gehienbat, baina Zangozakoak ez zuen halako hedapenik izan, eta ez zen apenas bere ingurunetik kanpo zabaldu. Lizarrako foruaren proiektzioa izan zen lehena, hark lortu zuen hedapen espazial handiena eta hura izan zen erromesaldien fenomenoari estuki loturik egon zena. Beraz, arestian aipatu dugun bezala, Borrokalaria Garesi eman ostean, haren ondorengoak, Gartzia Ramiritzek, Erriberriri eman zion 1147an eta Elori, 1149an, bai eta Villaviejari ere. Bigarren unea Antso VI.aren jardunak markatzen du; izan ere, ez zuen soilik Lizarrako zuzenbidea bere berriazko berrespen batez formalki aitortu⁸⁰, baizik eta, haren eraginkortasunaz jakitun, hiribilduaren garapena sustatzeko erabili zuen San

[11] Et ullus homo qui fecerit disturbo ad illos homines de mea terra qui venerit ad illo mercato in venita aut in ita pectabit mihi mille solidos.

[12] Et nullo franco aut iudeo qui ibi populaverit non donet letzda in tota mea terra.

Et hoc meum donativum vel ingenuamentum sicut superius est scriptum a fuero de Iacca laudo et confirmo ut habeatis et possideatis vos et filii vestri et omnis generatio vel posteritas vestra, salva mea fidelitate et de omni mea posteritate per cuncta seculorum secula, amen.

S[ignum] † RAIMUNDI COMES

Signum Adefonsi † Regis Aragonensium et comes barchinonensium

Facta carta in era M^a C^a LX^a VI^a, in mense marcio, in villa quod vocatur Iacha. Regnante me, Dei gratia in Barchinona et in Aragone et in Superarbe vel in Ripacurcia et in Lerida atque in Tortosa. Episcopus Petrus in Caesaraugusta, episcopus Martinus in Tarazona, episcopus Dodo in Oscha, episcopus Guillelmus Petre in Lerida, comes Arnal Mir palgariensis in Fraga et in Boil, don Fertungo in Estata, Fertun Dat in Barbastro et in Petraselze, Galin Xemenonis in Alkala, Ferriz in Oscha et in Sancta Eulalia, Arnal de Lascun in Boleia, Arpa in Luarre, Sancio de Borgia in Agierbe, Corneige in Morello, Loherenc in Auguero, don Marcho in Biele, Petro Lopez in Luesia, Deus Aiusa in Sos et in Argedas, Alaman in Luna, Garces Almorabet in Exea, Balles in Toguste, Fortunio Acenariz in Tiraza et in Unocastello, don Blascho, maiordomo, in Borga, Palazin in Alagon et Hariza, Petrus de Castellazola in Calataiub, Sancio Enecones in Darocha et in Mercuello, Galin Xemeniz in Belgit.

Ego Petrus de Anguero iussu domini mei comitis hanc cartam scripsit et de manu mea hoc signum † feci.

⁸⁰ Latinez idatzitako Lizarrako foruaren bertsiorik antzinakoenean –A idazketa, haren editoreen arabera–, amaitzeko, haren hitzurrean egozten den egiletzarekin bat etorri, Antso VI.aren dokumentu bateko eskatokoloko klausulak ageri dira; dokumentu hori Lizarran jaulki zen, 1164ko apirilean, eta, hain zuzen, data hori bat dator erabat erregearen formularekin batera doazen aipamen pertsonalekin, bai eta hura izenpetzen duen eskribaren (Ximeno) jardunarekin ere. Egun ezagutzen diren eskuizkribuetatik zaharrena, zeina udal artxibategian kontserbatzen baita, XII. mendeko jatorrizko tresna izan daitekeela uste da. Hala ere, Jakako foruarekin eta Ramiro II.ak egindako haren berrespenarekin alderatuz hemen egin den dokumentu horren azterketa kontuan hartuta, tresna horren egiletzari buruzko zenbait zalantza sortzen dira, bai eta Antso erregearen berrespen-ekintzaren irismenari buruzkoak ere. Balizko originaltasun-erreputazioari dagokionez, B idazketaren eta Jakako testuaren arteko identitate literalak badaudela egiaztatuta, zeinak ez baitira ageri Lizarrako diplomari jasota dagoen A idazketan (vid. *supra* II, 1.1), pentsa daiteke bi idazketa horien aurretik bazegoela beste eredu bat, harengandik gertuago eragongo litzatekeena. Ikuspuntu diplomatiko batetik deigarria gertatzen da, kantzelaritzako diplomatizat

Joan eta Arenalen bi burgu berri eraikiz. Horrez gain, urrunago, Donostiara ere hedatu zuen forua, eta, hori dela eta, zuzenbide horren hedapen-eremu berri bat zabaldu zuen⁸¹. Hirugarren une bat ere jazo zen, berantiarra hura; Tibalt II.aren erreinaldian gertatu zen, eta haren aurrekoa izan zenaren urratsei jarraikiz forua eguneratu zuen, beharrezko zabalkuntza eta erreformak eginez⁸². Halaber, Tebas eta Torralbari foru hori eman zien. Hori dela eta, XIV. mendean zuzenbide nafarreko testuak kodex batean biltzeari ekin zitzaionean, haien artean ageriko dira honako hauek, bakar bat izango balira bezala: *Libro de los fueros de Estella, de Olite, de Mont Real, e del Puente et de Tebas*⁸³. Jakako zuzenbideak Nafarroan izan zuen bigarren hedapen-gunea (denborari dagokionez, ez horrenbeste intentsitateari dagokionez) Iruñea izan zen. Jakina den gisara, Alfontso I.ak forua eman zien San Zernin burguan ezarritako frankoei, eta hiriko gainerako auzoetara hedatu zen gero; lehenik San Nikolaseko auzo berrira, eta, azkenik, apezpikuaren mendeko Nabarreriarra. Horrenbestez, lehenik Nafarroako hiriburuko frankoen burguari forua emateko arrazoia Donejakue Bidearen mendebaldeko bidean zuen kokapena izan bazen⁸⁴, gero, forua pixkanaka hiriko beste auzoetara zabaltzearen arrazoia, berriz, bestelakoa izan zen: hirian bizi ziren auzoen arteko liskarrak geldiarazi nahi ziren, hau da, behar politikoa zen⁸⁵. Alfontso erregearen

jotzen bada, protokoloko klausulek Ramiro II.aren dokumentuarekiko duten mendekotasuna; izan ere, eskatokolokoak monarka emailearen kanzelaritza-jardunarekin bat datoz, baina berrespen-klausularen eta hitzaurrearen artean gehiegizko paralelismoa dago formulazioan, eta, halaber, erregearen izena ez da aipatzen erregearen formularen. Hori horrela izanik eta adituagoak direnen iritziek ezer gehiago eranstean ez duten artean, aukera bat da egun ezagutzen dugun Lizarrako forua ez izatea Antso VI.ak berretsitako testua, baizik eta, aitzitik, kontzejuan izaera horretako errege-jardun baten ondorioz osatutako testu bat izatea; jardun hori irismen orokorrekoa izan daiteke edota Jakako foruari (hura, une hartan, Ramiro II.aren berrespenean jasota zegoena izango zen) berariazko aipamena egiten diona, behar bezala dokumentatuta, eta, hain zuzen, Jakako foruaren amaierako klausulak dokumentu foralaren taxutze formalerako erabili ziren. Bestalde, praktika hori Nafarroako beste udal-eremu batzuetan ere aurkitu daiteke garai hartan, bai eta geroago ere (vid. BARRERO, A. M., *Las redacciones navarras del fuero de Logroño*, in *Príncipe de Viana*, 53. bol., 196. zk. (1992), 409-28 or.).

⁸¹ Donostiako forua Gipuzkoako hiribilduetara hedatzeari buruz –dagozkion dokumentuen edizioarekin–, vid. BANÚS Y AGUIRRE, J. L., *El fuero de San Sebastián*, Zarautz: Donostiako Udala, 1963.

⁸² B idazketan jasotako testu bat da; erreforma horren irismenari buruz, vid. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Estella*, op. cit., 22-24 or.

⁸³ Kodex hori Salamancako Unibertsitateko liburutegian gordetzen da (ms. 2652) eta jatorria Errege Jauregiko liburutegian du (ms. 944); Lizarrako forua 129r.-128 folioetan dago jasota (cfr. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Estella*, op. cit., 33. or.).

⁸⁴ Izatez, Jakako forua aplikatu zitzairen herrietako foru-gutunen artean, hartan soilik ageri da erromesei buruzko arau bat. Horren salbuespena da Lizarrako foruko errubrika (II, 8), non erromesak baitira xede.

⁸⁵ Horri guztiari buruz: LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Pamplona*, op. cit., 27-37 or.

pribilegioak ez zuen horregatik bere jatorrizko izaera galdu; eta, hortaz, 1174an, Antso VI.ak Iriberriko lautadan finkatu ziren frankoei eman zien. Nolanahi ere, hasierako kokagune horrek ez zuenez funtzionatu, hamar urte geroago monarka leku hura berpizten saiatu zen eta hiribildu berri bat fundatu zuen horretarako: Atarrabia. San Nikolaseko estatutura jo behar izan zen herritar nafarrek lekua izan zezaten, handik urte batzuetara Alesbesen egin zen gisara, non ez baitago daturik han kanpoko jendea ezarri zela adierazten duenik⁸⁶. Desberdintasun horiek herritarren kondizio pertsonalari eragiten zien, baina, hala ere, arau multzo bera erabiltzen zuten euren burua gobernatzeko: Jakako forua. Horren froga da egundaino kontserbatu den bertsio luzea jasotzen duen kodexetako bat Alesbesko notario batek nafar erdarara egindako itzulpen bat izatea⁸⁷. Edonola ere, horrek ez zion galarazi San Zerningo foruari bere izaera, hau da, herritar frankoen estatutu espezifikoa izatea –hori ongi nabarmentzen da Tibalt II.a erregeak Lantz hiribilduari foru hori eman zionean–, ez eta foru pribilegiatu gisa zuen balio simbolikoa ere; izan ere, ezin da hori ez den beste kausarik ikusi foru hori Urroz hiribilduari eman zitzaionean –apur bat garaiz kanpo– edota Jakako forua Leringo Santistebani eman zitzaionean⁸⁸.

Horrenbestez, kontserbatutako dokumentuen bidez Jakako foruaren jarraipena egiteak haren intentsitatearen neurriari buruzko ideia argi bat ematen du, bai eta denboran eta espazioan izan zuen hedapenarena ere. Jakako forua aipatze hutsa bermea zen horrelako dokumentuetan, eta, gure ustez, berme-mar-ka horren azpian gordetzen zen zuzenbidea ikertzeko orduan ez dira hain adierazkorrak esku artean ditugun testuak. Oro har, dokumentu horiek emakidarekin batera neurri aldakorreko arau multzo bat izan ohi dute, baina, nolanahi ere, Jakako foruaren jatorrizko testutzat jotzen den horretakoa baino laburragoa izan ohi da. Arau horiek leku bakoitzeko xedapen partikularizat jotzeko joera dago, oso neurri txikian baitatuz bat Jakako jatorrizko testuarekin (Lizarrakoa izan ezik). Baina ikusi da, kritika diplomatikoak Aragoiko hiribilduko zuzenbidearen berregite berantiarra izan daitekeela planteatzen duenean, ikertzailea behartuta dagoela beste abiapuntu batzuetatik abiatzera. Horri dagokionez, honako egintza hau oso adierazgarria da: 1154an, Erramun Berengerrak Jakako forua Luesiari eman zionean, modu orokorrean eman zuen haren edukia zehaztu gabe, salbu eta armadan zerbitzatzeko salbuespen bat azpimarratzeko, izan ere, dirudienez, Jakako burgesak salbuesita zeuden zazpi urtez. Arau hori Asingo foruan ere agertzen da (Zangozakoa jaso zuen), eta bertan zehazten da epe hori igarotakoan erregeari laguntza eman behar diotela zelai beteko batailan –pentsa daiteke hori

⁸⁶ Vid. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Pamplona, op. cit.*, 76. or.

⁸⁷ Vid. MOLHO, M., *El fuero de Jaca, op. cit.*, XXIV-XXVI or.

⁸⁸ Vid. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Pamplona*, 76. or.

Ramiro II.aren idazketan eta Antso Ramiritzen idazketan xedatutakoaren baldintzetan egingo zela—. Hori kontuan hartuta, pentsa daiteke arau hori Jakako lehen foru-pribilegioan jada bazegoela, zeina seguru asko Antso erregeak berak eman baitzuen⁸⁹. Zantzu horretatik abiatuta, ez zait ausartegia iruditzen hura berreraikitzen saiatzea testu desberdinen ikerketa konparatiboaren eta testu-alderaketaren bidez; izan ere, testu horiek Jakako foruaren edo haren kideen emakidak direnez, familia foral horren zati dira.

2. Jakako foruarekin lotutako testuen analisi konparatiboa

Logikoa denez, Jakako foruaren hedapenari buruz arestian aipatutako testuen artean, garapen normatiboa duten haiek soilik dira erabilgarriak, eta hori ez da beti gertatzen. Luesiaren kasuan bezala, Eloko eta Tebasko dokumentuetan, emandako foruaren aipamen soilak egiten da; beste zenbaitetan, berriz, hala nola San Joan eta Arenalgoan, Lizarrako foruari dagokionez, edota Santa María de Uncastillokoan eta Torralbakooan, ageri diren xedapen urriek gai hauek jorratzen dituzte, besteak beste: errolda jakin batek duen ordaintzeko betebeharra, Santa Maria elizaren eskubideak eta infanzoiak ezartzeko baldintzak (gai horretan birpopulaketarekin lotutako beharren ondorioz ezarritako aldaerak ikus daitezke). Xedapen horiek leku horietako bakoitzari soilik eragiten diote. Hain zuzen, haien garrantzirik eza dela eta, analisi honetan alde batera utzi dira bai batzuk zein besteak.

Horrenbestez, Antso Ramiritzen Jakako forua gidatzat hartuz⁹⁰, analisi konparatiboa egingo da honako testu hauen alderaketaren bidez: Zangozako 1117ko eta 1122ko testuak, Gareskoa, Alquezarkoa, Ainsakoa, Iruñekoa, Asingo, Ramiro II.aren Jakakoa, Erriberrikoa, Berdungoa, Pueyo de Pintanokoa, Lizarrakoa, Iriberrikoa eta Pueyo de Castellongoa.

Aldez aurretik, haien guztien izaera dokumentalari dagokionez, komenigarria da ohartaraztea ezein kasutan ez dagoela jatorrizko tresnarik; izan ere, dokumentu horiek gerora egindako kopien bidez ezagutzen dira. Horietako zenbait emakidaren datatik hurbil egin ziren eta beste zenbait, berriz, aurrerago. Hala eta guztiz ere, dokumentu horien analisi diplomatikoak adierazten du jatorrizkoeki-

⁸⁹ Bestalde, egun Antso Ramiritzen foru gisa ezagutzen den dokumentuan ageri den armadan zerbitzatzeko obligazioari buruzko arauari egindako gehikuntza bitxia azaltzeko balio du aukera horrek. Arau horretan arauaren beraren betikotasuna ezartzen da haren ondorengoekiko (vid. *supra* II, 1.1.2), jatorrizko pribilegioaren balizko alegazio baten aurreko neurri prebentibo gisa.

⁹⁰ Era berean, azterketa honetan kontuan hartzen da Ramiro II.aren berrespena, non haren eduki normatiboa eta pribilegio hori osatzen duten berezko arauak erreproduzitzen baititu. Aldiz, Alfontso II.aren pribilegioa alde batera utzi da, ez baitu konkomitantziarik aurkezten interesekoak diren dokumentuekiko.

ko fideltasun maila handia dutela⁹¹, ez baita anomalia nabarmenik hautematen klausula diplomatikoetan. Zenbaitetan, datazio-akatsak aurkitu daitezke, kritikak egokiro konpondu dituenak⁹², eta, halaber, badira jatorrizko arau multzoari egindako gehikuntzak, hala nola Zangozako burgu berrikoan, Alquezarkoan eta Asingoan⁹³.

3. Testuen arteko konkordantzien finkapena

Kasu berberen tratamendutik abiatuta, testu desberdinen artean dauden identitateak ezartzea oinarritzat hartuta egin da testuen azterketa konparatiboa, kasu bakoitzean egon daitezkeen planteamenduen, formulazioen eta hartutako soluzioen antzekotasun-maila gorabehera. Horrela ezarritako identitateak honako konkordantzien zerrenda honetan daude jasota⁹⁴.

Konkordantzien taula

	J	S	Sn	PR	AI	A	P	As	JR	O	B	PP	E	I	C
[Foruaren emakida]	1	3	2	8	3	1	1	3	pr	1/3	1	4	pr	2	1
[Luberritzea]	2	-	-	3	2	-	-	14	-	6	-	2/5	-	1	-
[Errege aurreko delitua]	3	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
[Idem]	4	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
[Hilketa/lapurreta]	5	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	II.7	-	-

⁹¹ Soilik kasu batean dirudi, Pueyo de Castellongo foruarenean, ez dela jatorrizko testuaren kopia fidela, baizik eta hartan oinarritutako bertsio erromanizatu baten kopia, komenentziaren arabera eguneratua. Eta hori ikus daiteke hiribilduaren mugak zehazteari buruzko klausulan; izan ere, fundazio-dokumentuetan ohikoa denerako, xehetasun gehiegi ematen ditu.

⁹² Hori egiten du LACARRAK honako dokumentu hauen berrespen-urtea 1117an finkatzen duenean: Zangozako burgu zaharraren forua (cfr. *supra* 76. oharra), Alquezarkoa (*Alfonso el Batallador y las paces de Támara, Estudios de Edad Media de la Corona de Aragón*, 3 (1947-1948), 461-73 or.) eta Ainsakoa (*Documentos para el estudio de la reconquista y repoblación del valle del Ebro*, 1-319 zk., Zaragoza: Anúbar, 1982, 165. or.). Gauza bera MARTÍN DUQUEK Pueyo de Castellongo foruaren berrespen-urtea finkatzen duenean (cfr. *supra* 77. oharra).

⁹³ Zangozako foruko azken araua errege-izenpean eta datazio-klausularen erdian sartuta ageri da, eta mugapearen aprobetxamenduari buruzko aurreko arau baten zabalkuntza da. Alquezarkoan, dataren eta eskribaren izenpearen artean azoka egiteko egunari buruzko arau bat dago sartuta; eta Asingoan, berriaz, gehikuntzak hertsatze-klausularen eta errege-berrespenaren artean ageri dira, bai eta errege-berrespenaren eta erregearen izenpean erdian ere.

⁹⁴ Taula egiteko beharrezkoa izan da eduki normatiboa paragrafotan banatzea eta paragrafo horiei zenbakia ipintzea, beren edizioetan horrela erakusten diren testuen ereduari jarraikiz. Hori ez da horrela egin Ramiro II.aren Jakako foruaren berrespenaren kasuan Lacarra irakasleak eskaintzen duen numerazioari dagokionez; izan ere, numerazio hori testu horrek Antso Ramiritzen foruarekin dituen konkordantziatara egokituta dago. Lehen zutabearen ageri diren erubiriket kasuan jorratzen den gaia adierazten dute soilik, eta jarraian daudenak bakoitzari dagokion inisialarekin adierazitako testuei dagozkie (ordena kronologikoan jarrita daude).

	J	S	Sn	PR	AI	A	P	As	JR	O	B	PP	E	I	C
[Armada]	6	-	-	-	-	-	-	8	1	-	-	-	1.1	-	-
[Frankizia]	7	-	4	-	1	-	-	-	2	-	2/3	3	2.1	7	7
[Urtea eta eguna]	8	-	-	9	-	-	-	-	3	-	-	-	2.2	-	-
[Alera]	9	2	11	5	-	5	2	2	4	-	9	6	3	4	6
[Duelu judiziala]	10	-	-	-	-	-	-	5	5	-	-	-	4.1	-	-
[Fidantzak]	11	-	-	-	-	-	-	-	6	-	-	-	5	-	-
[Estuproa]	12	-	-	-	-	-	-	-	7	-	-	-	6	-	-
[Armak]	13	-	-	-	6	-	-	-	8	-	-	-	7.1	-	-
[Hilketa]	14	-	-	-	7	-	-	-	9	-	-	-	7.2	-	-
[Erasoa]	15	-	-	-	-	-	-	-	10	-	-	-	7.2	-	-
[Idem]	16	-	-	-	-	-	-	-	11	-	-	-	7.2	-	-
[Etxeko bakea]	17	-	-	-	-	-	-	-	12	-	-	-	8	-	-
[Isunen kobrantza]	18	-	-	-	-	-	-	15	13	-	-	-	9	-	-
[Epaiketak]	19	-	-	-	-	2	-	4	14	-	4	-	10.1	-	-
[Neurri faltsuak]	20	-	-	-	-	-	-	-	15	-	-	-	11	-	-
[Errotak]	21	-	-	-	-	2 ^a	-	13	16	-	-	-	-	-	-
[Infantzoiak]	22	-	6	7	-	-	4	-	-	2	8	7	13	5	-
[Zorreatako espetxea]	23	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2.22	-	-
[Mairuaren bahia]	24	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2.26	-	-
[Mugapeak]	-	1	3	1	-	4	-	1	-	5	2	8	-	3	4
[Lezda]	-	3 ^a	-	-	8	3	-	7	17	-	12	-	-	-	5
[Burgu-fundazioa]	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
[Donazioa]	-	-	7	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
[Errege jaur.]	-	-	8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
[Errege-babesa]	-	-	9	6	-	7	-	-	-	4	-	-	-	-	-
[Donazioa]	-	-	10	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
[Uren erab.]	-	-	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
[Hamarrenak]	-	-	-	4	-	-	-	11	-	-	6/7	-	-	-	-
[Azoka]	-	-	-	-	4	-	3	-	-	-	10	-	-	-	-
[Azokaren babesa]	-	-	-	-	5	-	-	-	-	-	11	-	-	-	-
[Lezda merkatariari]	-	-	-	-	9	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
[Azoka-eguna]	-	-	-	-	10	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
[Foru-berdintasuna]	-	-	-	-	-	-	5	-	-	-	-	7	-	6	-
[Erromesei saltzea]	-	-	-	-	-	-	6	-	-	-	-	-	-	-	-
[Eraikuntza]	-	-	-	-	-	-	7	-	-	-	-	-	-	-	-
[Erosteko askat.]	-	-	-	-	-	-	-	6	-	-	-	-	-	-	-
[Elizak]	-	-	-	-	-	-	-	10	-	-	-	-	-	-	-
[Klerikoak]	-	-	-	-	-	-	-	12	-	-	-	-	-	-	-
[Komunak]	-	-	-	-	-	-	-	16	-	-	-	-	-	-	-
[Bainuak]	-	-	-	-	-	-	-	-	18	-	-	-	-	-	-
[Bazkalekuak]	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	5	8 ^a	-	-	-
[Erantzukizuna]	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	l.12	-	-
[Liskarrak]	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	l.14	-	-
[Autoritateak]	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2
[Biztanleak]	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	3

4. Konkordantzia-taularen emaitzak

Konkordantzien zerrenda honetako datuen azterketak, izan osotasun-i-kuspegi batetik egindakoak (irakurketa horizontala), edo izan testu bakoitzak Jakarekin duen loturarekin egindako azterketa indibidualizatuak (irakurketa bertikala), agerian uzten ditu azpimarratzea komeni diren egintza batzuk:

Lehenik, kasu bat soilik dago jasota aztertutako testu guztietan: foruen berariazko emakida.

Beste zenbait kasu testu gehienetan ageri dira –kasu bakoitzari dagozkion kopuruak aldatu egiten dira–. Horien artean, gehienak Jakako foruan daude, bi izan ezik:

- Kasu bat, mugapeen emakidari dagokiona, ez dagoena Jakako foruan (ez eta haren berrespenetan, ez eta Lizarrakoan), beste guztietan dago jasota, Iruñekoan izan ezik.
- Kasu bat, alera foralari dagokiona, testu guztietan dago jasota, Alquezarkoan eta Erriberrikoan izan ezik.
- Bi kasu, frankizia-kondizioari buruzkoa (pertsonea edo ondasunen gainekoa) eta infantzoien finkapenari buruzkoa, ez dira ageri sei testutan, baina hori ez da gertatzen beti testu berberetan. Bi kasu horiek ez dituzte Zangozako burgu zaharreko foruak, Ainsakoak eta Asingoak; lehena falta zaie Garesko, Iruñeko eta Erriberriko foruei; eta bigarrena falta zaie Alquezarko foruari, Jakako foruaren berrespenari (ez da hori gertatzen Lizarrakoaren kasuan) eta Pueyo de Castellongo foruari.

Gehienetan ageri diren kasu horiekin batera, beste bi, halaber, testu ugaritan ageri dira. Lehena, espazioa eskuratzeari dagokiona, Antso Ramiritzen Jakako foruan ageri da (ez haren berrespenean, ez eta Lizarrakoan ere), bai eta Gareskoan, Alquezarkoan, Asingoan, Erriberrikoan, Pueyo de Pintanokoan eta Iriberrikoan ere. Bigarrena, lezdaren salbuespenari dagokiona –Ramiro II.ak eman zion Jakari– Zangozako burgu zaharraren foruan, Asingoan, Pueyo de Castellongoan, Alquezarkoan, Ainsakoan eta Berdungoan ageri da.

Gainerako bat etortzeak aztertutako lau foruri edo gutxiagori eragiten diete. Hiribilduan epaiketak egiteari dagokion araua Jakakoan, Ainsakoan, Asingoan eta Berdungoan ageri da. Eta, halaber, Jakako forua alde batera utzirik, korrespondentzia laukoitz bat gertatzen da, mugapearen gaineko errege-babesari dagokion kasuarekin loturik, zeinak Zangozako burgu berriaren testuari, Gareskoari, Erriberrikoari eta Ainsakoari eragiten baitie.

Bost kasu hiru testutan ageri dira; horietako bi, giza hilketari eta errotaren gaineko errege-monopolioaren salbuespenari buruzkoak, Jakako foruan, Alquezarkoan eta Asingoan ageri dira; beste bat, hamarrenen ordainketari buruzkoa,

Gareskoan, Asingoan eta Berdungoan dago jasota. Azken hori, halaber, bat dator Alquezarkoarekin eta Iruñekoarekin azoka egiteari buruzko arauari dagokionez, eta, azkenik, Iruñekoa bat dator Pueyo de Pintanokoarekin eta Iriberrikoarekin: horietan foru-berdintasuna beste edozein kasurekiko independentea da.

Amaitzeko, bi testuren arteko sei korrespondentzia daude: Jakako forua Asingoarekin bat dator armadari buruzko eta duelu judizialari buruzko arauetan, bat dator Gareskoarekin urtea eta egunaren preskripzioa ezartzerakoan, eta, halaber, Alquezarkoarekin hiribilduan armak erabiltzea zigortzeari dagokionez. Bestalde, Berdungo forua bat dator Alquezarkoarekin azokaren babesari buruzkoan, eta Pueyo de Pintanokoarekin bazkalekuetako sarioei buruzko arauan.

Korrespondentzia horiez gainera, zenbait forutan ageri diren arauak haietako bakoitzarenak dira soil-soilik. Kopururik handiena, logikoa denez, Antso Ramiritzen Jakako foruari dagokio, hura baita testurik luzeena: 11 kasu. Jarraian, Zangozako burgu berrikoak eta Asingoak launa dituzte; bi dituzte Alquezarkoak, Lizarrakoak eta Pueyo de Castellongoak, eta bakarra, Jakako foruaren Ramiro II.aren berrespenak, non bainuen errenten donazioa egiten baitio Jakari⁹⁵.

Zerrenda Jakako ereduaren arabera ikusi eta gero, nabarmendu beharreko lehen alderdia da identitate kopuru handiena erakusten duen testua, haren luzera handiagoarekin bat datorrena (16 arau), Asingoa dela (9 arau). Hala ere, konkordantzia horiek ez dira proportzionalak erkatutako testuen eduki normatiboarekiko, eta, halaber, faktore kronologikoak ez dirudi eragin txikiena duenik horretan. Horrenbestez, agerpen ordenari jarraiki, ikus daiteke Zangozako burgu berriko foruko hiru arauetatik bi harekin bat datozela, burgu berriko foruko hamaika arauetatik, lau; Garesko bederatzi arauetatik, bost; Alquezarko hamar arauetatik, sei; Ainsako zazpi arauetatik, hiru –Iruñera estrapolatu daitezkeen zenbakiak–; Erriberriko sei arauetatik, hiru; Berdungo hamabi arauetatik, bost; bost, halaber, Pueyo de Pintanoko bederatzietatik eta Iriberriko zazpizetik; eta, azkenik, Pueyo de Castellongo zazpi arauetatik, hiru.

Bigarrenik, adierazgarria da, orobat, korrespondentzia horiek esandako horietan guztietan gertatzea kasu berberetako batzuekin edo besteekin, lehen osotasuneko ikuspegian aipatu direnak, eta, era berean, adierazgarria da zenbait foruk kasu horietan ikus daitezkeen antzekotasunak soilik izatea Jakakoarekiko, eta, are gehiago, horiek beti, Garesen kasuan izan ezik, Nafarroako herriekin bat

⁹⁵ Emakida pribilegiatuaren izaera hori, nahitaez bete beharreko arau batena ez dena, errepikatzen da zenbait lekutako foruetan, eta leku bakoitzeko berezitasunei erantzuten dietenez, ez dute interesik kasu honetan. Horrelakoak dira Zangozako 1., 7. eta 10.a, Iruñeko 7.a eta Pueyo de Castellongo 3.a. Ez da hori zenbait testutan ageri diren izaera pribilegiatuko arauen kasua, hala nola lezdaren salbuespenari buruzkoa eta azoka egiteari buruzkoa.

etortzea; bitartean, Aragoikoek⁹⁶, hau da, erromesaldien fenomenotik kanpo edo modu tangenzialean garatutakoek erlazio handiagoa erakusten dute –egia da, nolana ere, mugatua dela erlazio hori–, orotara Jakako ereduaren zortzi arauri eragiten baitie.

Zuzenbide hori sortu eta formulatu zenetik hura egundaino iritsi zaizkigun foruetan gauzatzeari dagokionez, oharpen horien bidez lehen emaitza batzuk iradoki daitezke:

Lehenik eta behin, foru horietako gehienetan kasu berberak egoteak –sei–, zeinak izaera honetako dokumentuetan ohikoak diren gaiez jarduten baitira, guztiek oinarri komun bat dutela adierazten du. Oinarri hori bere osotasunean Zangozako burgu berriaren foruan soilik dago jasota⁹⁷, baina ez da hori gertatzen egun ezagutzen den Jakako foruaren bertsioan.

Bestalde, esan behar da bi testuen artean dagoen erlazio nominala ez dela beti bere eduki normatibora egokitzen. Beraz, Asini *fueros tales quales donavi ad illo burgo novo de Sangüesa* ematen bazaizkio ere, foru horretako zenbait arau ez datoz bat haiekin, baizik eta Jakako foruan jasotako kasuekin. Hori bezain adierazgarria da Iriberriko foruaren kasua haren Iruñeko matrizearekin alderatuz gero; izan ere, Iriberriko foruko zazpi arauetatik bi ez dira ageri jarraitutako ereduaren.

Zenbait testuri soilik eragiten dieten beste korrespondentzia batzuek –guztiak Aragoiko herrietakoak–, itxuraz, haien arteko lotura handiagoa dute. Nabarmenena, bost kasuri eragiten dielako, Jakako, Alquezarko eta Asingo foruetan gertatzen da; izan ere, haietan guztietan bi kasu daude jasota, eta horiei gehitu behar zaizkie Alquezarkoan jasota ez dauden beste bi, eta Asingoan jasota ez dagoen beste hirugarren bat.

Azkenik, badira zenbait kointzidentzia testu batzuen artean. Testu horien arteko erlazio bakarra haien balizko jatorrizko komunitatetik eratorritakoa da, baina hori ez dator bat haien testuetan berariaz adierazitako jatorriarekin. Horixe gertatzen da hamarrena ordaintzeko betebeharrari buruzko kasuarekin, zeina Garesko (Lizarra), Asingo (Zangoza) eta Berdungo (Jaka) foruetan jasota baitago. Aitzitik, Alquezarkoak eta Berdungoak azokaren erregulazioan erakusten duten kointzidentziaren izateko arrazoia ez dago foruan, baizik eta Jakako

⁹⁶ Pueyo de Pintanokoa salbu; izan ere, hark Jakako foruarekiko dituen korrespondentziak testu guztietan edo gehienetan ageri diren bost kasutan gertatzen dira, hain zuzen.

⁹⁷ Egia da, konkordantzien taulan ageri den gisara, lezdaren salbuespena ez dela esplizituki formulatua ageri testu horretan, agian hori delako izaera normatiboko berariazko aipamen bakarra Alfontso I.aren burgu zahararen foruaren berrespenean jasotzen dena, zeina soilik bost urte geroago burgu berriera zabaldu baitzuen.

jardunbidean⁹⁸; izan ere, Goi Aragoiko eskualdean orokortua (leku batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago) zegoen ohiturazko zuzenbidearen formula-zio independente eta kasuista batean oinarritutako harreman normatiboa izan daiteke, besteak beste, Berdunen eta Pueyo de Pintanoren artean, ganadu-barrutien erregulazioari buruz⁹⁹.

5. Konkordantzien testu-analisia

Jakako foruaren arabera ezarritako konkordantzien oinarriaren gainean egindako testuen arteko analisi konparatiboak erakusten du testu batzuetan modu batera eta besteetan bestera jokatzeko delako kasuaren arabera. Honela bereiz daitezke:

5.1. Elkarrekotasun handiko kasuak

5.1.1. Jakakoarekiko eta beste foru batzuekiko komunak diren kasuak

Bost kasu horiek, guztiak biztanleak ezartzeari buruzkoak, funtsezko antzekotasun bat dute, baina, halaber, haien arteko aldaerak (batzuk handiagoak besteak baino) aurki daitezke, dela planteamenduan, dela ematen diren soluzioetan; izan ere, arauak leku bakoitzaren espazio-denborazko inguruabarretara egokitu behar izaten dira sarritan. Haien formulazioari dagokionez, aztertutako zenbait forutan ez dira erabateko literaltasunez adierazten arauak; nolana ere, badira zantzuak pentsarazteko balizko eredu testualak erabili direla, zeinak, hala ere, ezin baitira haietako bakar batekin ere identifikatu.

Kasu horien planteamenduaren aldaerei dagokionez, nabarmenenek honako hauei eragiten diete: frankizia-egoerari (§ 7)¹⁰⁰, orube bat eskuratzeari (§ 2) eta biztanle talde jakin batzuen ezarpenari (§ 22). Lehenengoan, Jakako testuan eta Nafarroakoetan ez bezala, non pribilegioa biztanleek eskuratutako jabetzei baitagokio, Alquezarkoan, Berdungoan eta Pueyo de Pintanokoan pribilegioa

⁹⁸ Jakako azoka ez zen modu ofizialean aitortu 1197ra arte. Urte horretan, Petri II.ak emandako pribilegioaren bidez ezarri zen. Hala ere, Berdungo foruak (§ 10), 1158. urtean datatuta dagoenak, agerian uzten du gutxienez azokaren errealitate faktikoa, eta horrek bere araudia baldintzatzen du bere azoka egiteko egunari dagokionez.

⁹⁹ Horri dagokionez, gai horrekin duen erlazioagatik, komeni da arestian aztertutako Alfontso II.a-ren Jakako foruaren berrespeneko arauak (vid. *supra* II, 3) gogoratzea; izan ere, jatorri estatutarioa izan dezaketen arau horien artean ganadua lapurretari eta bahiari buruzko zenbait arau daude, eta horrek, nolabait, Berdungo foruan araututakoa ekartzen du gogora.

¹⁰⁰ Paragrafoaren zenbakiari egiten zaion aipamena Jakako foruari dagokio bertan jasota dagoenean, edo, bertan ez badago jasota, hura jasotzen duen foru zaharrenari dagokio.

biztanleei dagokie. Planteamendu aniztasun horrek arauaren identitateari buruzko zalantzak sor baditzake ere, zalantza horiek desagertu egiten dira egiaztatzen denean Aragoiko testuek Jakakoaren literaltasunari jarraitzen diotela, haien irismena baldintza berdinetan argitzen baitute *sine ullo malo cisso* adierazpidearen bidez, eta hori, hain justu, Jakako testuaren ezaugarria da eta, itxuraz, testuinguru horretan ulertzeko zaila da, behintzat handik denbora batera¹⁰¹. Esaldi hori Alquezarko eta Berdungo testuetan erabiltzeak argi uzten du bien arteko harremana; harreman hori berehalakoa izan daiteke, edota eredu bera erabili izanaren ondoriozkoa. Eredu hori, jakina, ez da ezaguna den Jakakoa, baina Zangozako burgu berrikoak eredutzat hartu zuenarekin lotura izango luke; izan ere, bi testu horietan, Jakakoan erabiltzen diren *libre* eta *ingenuo* terminoei *franco* terminoa gehitzen zaie. Bestalde, Pueyo de Pintanoko foruak errolda txarraren esaldia ez du jasotzen, baina bere formulazioa Alquezarkoaren berbera da, hitzez hitz. Pueyo de Castellongoak, berriz, Zangozako arauaren formulazio propioa egiten du, Iriberrikoak Jakakoarekiko egiten duen bezala, hura zeinahi zela ere.

Espazioaren antolaketari buruzko arauak, non planteamendua eta soluzioa gauza bera diren, hau da, espazioa libreki eskuratzea, formulazio desberdinak ditu hura jasotzen duten foruetan. Jakako foruaren abstrakzioa handia da; izan ere, badirudi arauaren xedea libreki eskuratutako jabetza bermatzea dela hirugarrenen aurrean (*claudat suam partem secundum suum posse*); gainerakoek beren irismena onibarrari lotzen diote (Asín, Erriberri), edo orubeari (Pueyo de Pintano, Iriberrri), edo bati nahiz besteari (Gares, Alquézar). Bestalde, Gareskoak, Alquezarkoak, Asingoak eta Erriberrikoak bat datoz, espazio jakin bateko laboratu gabeko lurretan jartzen baitute muga logikoa; lehenengoan, hiribildura egunero itzuli ahal izateko aukera izatean finkatzen da, eta Alquezarkoan eta Asingoan, berriz, gaitasun horrek errege-herriari inolako berariazko mugarik gabe eragiten dio, baina, Erriberriko kasuan bezala, muga hori esleitutako mugapari dagokiola ulertzen da. Beste bi foruei dagokionez, Pintanokoan bizitzeko espazioa soilik aipatzen da, eta Iriberrikoan, berriz, eraikin erabilgarri orori egiten zaio erreferentzia *et cetera* adierazgarri baten bidez. Idazketa-ikuspuntua batetik begiratuta, antzekotasun bikoitz bat gertatzen da: beste behin ere, Iriberrikoaren eta Jakakoaren artean formula bera erabiltzen da, *secundum suum posse*, zeina Jakako testuaren bereizgarria baita arestiko kasuarena den adina.

¹⁰¹ Arau horrek formulazio bera du Antso Ramiritzen foruan eta Ramiro II.aren foru horren berrespenean, baina, itxuraz, Lizarrako foruan, haren A idazketan, terminoa argitu behar izan zen; izan ere, *sine ullo malo interdicto vel cisso* esaldia erabili behar izan zen, eta are gehiago B idazketan, non bi termino horiek *sine aliquo impedimento* esaldiaz ordeztu baitziren (cfr. *supra* 26. oharra). Bestalde, Iriberriko foruan hura jasotzen da, baina esamolde hori saihestu, eta eduki zehatz honez ordeztzen du: *nichil redditus inde redentes*. Horri dagokionez, *ullo malo fuero* esamoldea ere aipatu behar da, Alquezarko testuan aipatutakoaren aurretik baitoa *atque* kopulatiboaren bidez.

Bestalde, beste bostena dago, baina partikularitasun batekin: kasu honetan Pueyo de Pintanoko testuaren erabateko literaltasuna ez da Alquezarrekoarekiko, baikizik eta Gareskoarekiko.

Biztanle ez burgesen finkapenari buruzko kasuaren planteamenduaren funtsezko desberdintasuna Jakako foruaren eta hura jasotzen duten gainerakoen artean gertatzen da. Nolanahi ere, printzipio bera indarrean egoteari buruz hitz egiten da: talde sozial jakin batzuen onarpena edo errefusa haien egoera fiskalaren arabera. Printzipio hori testu guztiek aipatzen dute berariaz, baina Jakakoan zeharka egiten da, onibarrak haiei donazio bidez edo salmenta bidez besterentzea debekatuz. Itxuraz Antso Ramiritzen foruan jasotako arau hori ez zenez Jakarentzat formulatu 1197ra arte¹⁰², pentsa daiteke arau hori testu horretan egotea jatorrizko testua eguneratzeko gogoaren ondoriozkoa dela; izan ere, jatorrizko testu horretan antzinako baztertze-printzipioa egongo zen, izaera fundatzaileko zenbait testutan formulatuta agertzen den gisara. Horrez gain, diferentziak ageri dira gaiari buruz planteamendu bera eskaintzen duten testuetan. Garrantzitsuenak soluzioari eragiten dio; izan ere, testu nafarrek, Erriberrikoak izan ezik, bazterketa xedatzen dute; Aragoiok, berriz, aurkakoaren aldeko hautua egiten dute. Bestalde, haien artean liberalitate progresibo bat ikusten da arauaren aplikazioan, biztanleen aurretiazko onarpena behar baita Iriberrin, eta Lizarran erregearena ere bai¹⁰³. Horren izateko arrazoia denboraren iragatean legoke, bai eta herri bakoitzak izan zitzakeen biztanle-beharretan ere. Era berean, badira aldaerak arauaren irismenari dagokionez; Zangozako burgu berrian (hemen burgu zaharrean ere bai) eta Garesen infantzoiei zuzenduta dago, horrela mantentzen da Berdun eta Pueyo de Pintanokoetan, eta San Zerningoan (gauza bera egingo du gero Iriberrikoak) nafarrei eta klerikoei hedatuko zaie. Azken horiek ez dira Erriberrikoan aipatzen, eta gauza bera gertatzen da infantzoiekin Lizarrakoan. Idazketaren ikuspuntutik, dualtasuna dago Nafarroako eta Aragoiko testuen artean, Erriberrikoan izan ezik, zeina alderdi horretan Aragoikoetatik gertuago baitago; Nafarroako testuetan, elkarren oso antzekoak izaki, Gareskoaren, Iruñekoaren eta Iriberrikoen artean dagoen erabateko identitate formularra nabarmendu behar da.

Gainerako bi arauak aldaera intzidentalak soilik erakusten dituzte beren formulazioan. Foruen emakidari buruzko manuari dagokionez (§ 1), arauak Jakakoan aurkezten duen enuntziatuarekin alderatuz, gauzarik aipagarriena da

¹⁰² Vid. *supra* 39. oharra.

¹⁰³ Komeni da gogoraraztea Lizarrako foruko arau hori Ramiro II.aren Jakako testuarekin bat datozen Lizarrako foruko arauen ondoren ageri dela. Infantzoiak baztertuz, arau hori nafarrei eta kleriko atzeritarrei zuzenduta egoteak adierazten du infantzoiei buruzko araua talde horiei hedatzeko asmoa zegoela; izan ere, arau hori, seguru asko, Lizarran indarrean egongo zen, Gareskoan jasota baitago.

guztietan foruen kalitatearen gaineko aipamena falta dela (positiboa nahiz negatiboa) eta, halaber, ez dela ageri biztanleek egindako eskaera. Osterantzean, honetan dago aldea: Zangozakoan emandako foruak bertako foru propioak bezala aurkezten dira, bai eta Jakako eta Lizarrakoen hurrenez hurrengo berrespenetan ere; gainerakoetan, jatorria estatutu jakin bati egozten zaio –Jaka, Lizarra edo Zangoza–; izan ere, identifikazio bikoitza aztertutako testu berantiarrenean barrik ageri da, Pueyo de Castellongoan, hain zuzen. Bestalde, Garesko testuak berezitasun bat badu: jatorria adierazteko, Lizarrako foruetara jotzeaz gain, hedatu egiten du aukera hori, eta hartan indarrean dauden ohiturazko arauei (*usaticos vel consuetudines*) ere egozten die jatorria. Arauaren idazketan –oso antzekoa guztietan– dauden diferentziak erregearen ekintza izendatzeko erabilitako aditzetan dago¹⁰⁴, emandako estatutuari aipamena egiteko modu objektiboan edo subjektiboan¹⁰⁵ (erregeari dagokionez edo biztanleei dagokionez) eta emandako estatutuaren irismen orokorra zehazteko moduan, hura adierazten denean¹⁰⁶.

Bazkalekuen eta basoen aprobetxamendu askeari buruzko arauak (§ 9) bere formulazioan edukiari dagokion aldaera bakarra du: espazioaren mugaketa, zeina beti baita lekuaren mugapea¹⁰⁷ (toponimo egokien bidez finkatuta egon daiteke, foruaren arau honetan edo beste batean, edo, bestela, mugape hori bat etor daiteke inguruko lurrekin –betiere haren hedadura dela eta egunean bertan hiribildura bueltatzea posible bada–, eta, hain zuzen, horrela egiten da Ainsako eta Asingo foruetan); orobat, neurri espazial hori aplikatzen dio arau horri Jakako foruak eta haren berrespenak, bai eta Lizarrakoak ere¹⁰⁸, eta, halaber, Borro-

¹⁰⁴ Hurrengo hauek dira: *concedo et confirmo* Jakakoan eta Ainsakoan; *confirmo* Zangozako burgu zaharrekoan; *dono* Zangozako burgu berrikoan eta Asingoan, Alquezarkoan, Erriberrikoan eta Pueyo de Pintanokoan; *concedo* Gareskoan; eta, azkenik, *dono et concedo* Iruñekoan eta Iriberrikoan eta Jaka eta Lizarrakoen berrespenetan. Berdunگو foruak zuzenean lotzen dio foruaren emakida *placuit mihi* protokolo-jakinazpenaren formulari.

¹⁰⁵ Alquézar, Ainsa, Berdún eta Pueyo de Pintanoko foruek formulazio objektiboa erakusten dute, eta haien guztien berezitasuna da guztiek Jakako forura jotzen dutela (Castellonen Zangozakoarekin dago identifikatua); erregearen ekintza aipatuz egiten dute formulazio subjektiboa Zangozakoak eta Asingoak eta Jaka eta Lizarrakoen berrespenek, eta formulazio subjektiboa egiten dute, halaber, biztanleak aipatuz –berezia biztanle horien eskaerak aipatzen baitituzte– Antso Ramiritzen Jakakoak, eta ematen zaien foruaren jatorriari aipamena egiten diote Gareskoak, Erriberrikoak, Iruñekoak eta Iriberrikoak.

¹⁰⁶ Berezitasun batekin kasu honetan: gradazio testual nabarmen bat. Zangozako burgu zaharreko foruan, *de letzdas et de totas alias causas*; Gareskoan, *in totas vestras causas et vestras faciendas*; eta Iruñeko San Zerninekoan eta Iriberrikoan, *in totas vestras faciendas et vestros iudicios*.

¹⁰⁷ Pueyo de Castellongo foruarena salbuespena da, bertan *todo meo regno* eremua adierazten baita. Horren oinarrian, beharbada, erromantzezko bertsiorearen egileak egindako errege-herri (*realengo*) terminoaren interpretazio okerra egon daiteke, zeina, agian, transkribatutako ereduian jasota egongo zen.

¹⁰⁸ Berezitasun batekin: denbora hori egun oso batera zabaltzea desplazamendu bakoitzerako (cfr. F E I, 2).

kalariak Nafarroako herriei egindako emakidetan neurri espazial hori aplikatzen zaie emandako mugape hori gainditzeagatik¹⁰⁹. Arauaren idazketak –nahiz eta ezein kasutan bat etortzea ez den erabatekoa– antzekotasun nabarmen bat du; ez da hain nabarmena Jakako testuan, baina are nabarmenagoa da Zangozako burgu berrian gai horri eskaintzen dion bigarren paragrafoaren eta Ainsa, Asín, Pintanokoen artean eta, neurri txikiagoan, Berdungoarekin alderatuz, eta, hala ere, aldaera bat dago eskubideen enuntziatuan, zeina, halaber, Gares eta Iruñekoetan ere gertatzen baita¹¹⁰. Hura, formulazioan besteekiko duen antza galdugabe, Jakakotik gertuago dago, eta azken hori, halaber, bat dator Zangozako burgu zaharreoarekin *silva* terminoaren erabileran, zeina xehetasun txikia izanagatik ez baita garrantzirik gabekoa, salbu eta ezusteko kointzidentzia hutsa bada. Iriberriko foruak, berriz, Iruñeko ereduari jarraitzen diola dirudi, baina bere formulazioarekin, eta gauza bera gertatzen da arauarekin Pueyo de Castellongo foruan.

5.1.2. Jakako foruan ez dauden kasuak

Aurrekoetan bezala, biztanleen finkapenarekin estuki lotutako bi kasu dira; izan ere, bigarrena, lezda ordaintzeko salbuespena, fundazio-gutunek berezkoak dituzten pribilegioen muinarekin batera ageri ohi da. Egun ezagutzen diren Jakako testuetan mugapeen emakidari buruzko arauaren (§ 1) absentziak ez du baztertzen arau hori egon zitekeenik lehenagoko dokumentu batean; bestalde, San Zernin eta Alquezarkoetan ez egoteak, itxuraz, badu justifikazioa: ingurune jakin batean finkatutako gunek izatea¹¹¹. Gainerako testuetan, haien edukia dela eta, formulazioak izaera autonomoa du kasu bakoitzean; horren ondorioz, Ainsako eta Asingo foruen arteko ageriko antzekotasun formal eta substantiboa soilik azpimarratu daiteke¹¹².

¹⁰⁹ Eremu horrek, non mendi eta bazkalekuak ustiatzeko eskubidea aplikatzea aitortu den, beste hiribildu batzuetako mugapeei eragin ziezaiekeen, eta hori berriaz onartzen da Zangozako burgu berrriaren foruko arau batean, eta honako hau aipatzen du zehazki: *terminos de alias villas in circuytu de Sangossa*.

¹¹⁰ Berriz ere litekeena da hitz jakin bat ulertzeko zailtasunak eragindako aldaera bat izatea; kasu honetan, Zangozako bi testuetan erabilitako terminoa: *lignare*. Garesko foruan, terminoa saihesti eta *inçidatis ligna* esamoldea erabiltzen du, eta *talliare* terminoaren alternatiba gisa aurkezten du; gainerakoek hitza ez erabiltzeko aukeraren alde egiten dute.

¹¹¹ Hori nabarmena da San Zernin auzoaren kasuan, hirigune handiago baten barnean kokatuta baitago. Jakari dagokionez, araua fundazio-dokumentuan egon izana posible den arren, agian ez zuten egokitzen jo hura Ramiro II.aren berrespenean eta ondoren egin zen eta Antso Ramiritzi egotzen zaion bateratzean sartzea, arau horretan xedatutakoa tresna horiek egiteko uneko errealtatearekin bat ez etortzeagatik.

¹¹² Elkarrekikotasun horren irismenari buruz, vid. *supra* arestian alera foralari buruz azaldu dena.

Jakari, Lizarrari eta Iruñeari emandako lehen estatutuetan lezda ordaintzeko salbuespenari buruzko arauak ez egotearen arrazoia izan daiteke hirigune horiek Donejakue Bidearen derrigorrezko igarobideak izatea¹¹³; baina, itxuraz, indarrean egon zen Zangozan, agian, Antso Ramiritzek burgu zaharrari emandako pribilegio nagusia izateagatik, zeina berariaz nabarmentzen baitu Borrokariak foruak berrestean. Nahiz eta egia den ez duela lezda ordaintzeko salbuespena zehazki aipatzen, agerikoa dirudi horrela izango zela; izan ere, Asín eta Pueyo de Castellongo foruetan agertu ez ezik, ohiko pribilegioa zen Antso erregeak eta haren ondorengo Petri I.ak egiten zituzten mota horretako emakidetan ere¹¹⁴. Lezda ordaintzeko salbuespena errege-herri osora hedatzen da. Erresumatik ateratzean haren ordainketa eskatzea –hori Asingo foruan bakarrik aipatzen da– arau orokortzat aitortuta egon zitekeen. Zehaztapen hori eginda, arauaren formulazioa berbera da testu guztietan; nolahi ere, Berdungo foruan biztanle franko eta juduei aplikatzen zaie. Castellongo foruan, berriz, ez da lezda ordaintzeko salbuespena ezartzen, baizik eta lurreko eta itsasoko bidesariarena, zeina, zalantzarik gabe ezagutzen den bertsioaren egileari egotzi behar zaion¹¹⁵.

5.2. Jakako foruarekiko eta Aragoiko foruekiko kasu komunak

Multzo honetako zazpi arauetan modu askotara jokutzen da; izan ere, haie-tako hirutan aldaerek funtsean idazketari eragiten diote, bitan, planteamenduari ere bai, baina ez soluzioari; hirugarrenean, berriz, kasuaren bestelako planteamenduak eragiten dio soluzioari. Halaber, bestelako soluzioa eskaintzen dute, partzialki behintzat, armada arautzen duten foruek.

Identitate-maila handiena epaiketei (§ 19), armen erabilerari (§ 13) eta delu judizialari (§ 10) buruzko kasuetan aurkitu daiteke. Epaiketei buruzko

¹¹³ Gogoratu behar da lezda ordaintzeko salbuespena Ramiro II.ak eman ziola Jakari. Bestalde, Iruñeko San Zerningo foruaren jatorrizko bertsioak ez du arau hori jasotzen, baina haren bertsio zabalago batean jasota dago xedapen baten bidez. Xedapen horrek lezda eta bidesaria ordaintzetik salbuesten ditu burgesak, eta, agian, Antso VI.ak bidesaria ordaintzearen salbuespena berretsi zuenean egin zen (cfr. LACARRA, J. M. eta MARTÍN DUQUE, Á. J., *Pamplona, op. cit.*, 8. zk. eta 25., 32., 85-86 eta 127-128 or.). Lizarrako foruan, berriz, II, 59. arauan erregulatzen da lezda, baina ez dio salbuespenari aztertutako foruetan ematen zaion zabaltasunik ematen. Erriberri eta Iriberriko foruek, beren matrizeekiko fidelki jokatu, ez dute salbuespena jasotzen.

¹¹⁴ Horrela egin zuen Antso Ramiritzek 1092an Arguedas herri nafarrari forua eman zionean, bai eta Aragoiko Alquezarri, Monzóni eta Castellari eman zienean ere. Era berean, salbuespena jasotzen dute Petri I.ak Huescari eta Barbastrori emandako pribilegioek ere.

¹¹⁵ Kontuan izan behar da testu horretan mugapeen ustiapen-eskubidea erresuma osora hedatzean ere agerikoa egingen zela esajeratzeko joera (cfr. *supra* 107. oharra).

araua Ainsa, Asín eta Berdungo foruetan dago jasota, eta, horietan, Jakakoan bezala, tokiko biztanleak salbuetsita daude hiribildutik kanpo epailearen aurrean aurkeztu behar izateaz. Arauaren formulazioa, esplizituagoa Ainsa eta Asingo foruetan zenbait xehetasun emateagatik, zehaztu egiten da Jakakoan, agian Asingo idazketaren antzeko batean oinarrituta; Berdungoak, ordea, formalki Jakakoaren antzekoa izanik, garatzeko posibilitatea alde batera uzten du Jakakora berariaz igorritz. Bigarren arauan –Jakakoarekiko eta Alquezarkoarekiko komuna–, kasua berbera izanik, ñabardura-diferentziak agertzen dira etengabe, bai planteamenduan, bai soluzioan. Beraz, biek ala biek mila soldatiko zigorrak zigortzen dute armen erabilera erasokorra, baina Jakakoak ordezkotza irtenbide bat ere eskaintzen du: eskua moztea. Horrez gain, foru horretan araua bertako biztanle baten aurkako erasoak zigortzera dago zuzenduta, baina Alquezarkoan, berriz, aipamen hori izaera espazialekoa da (burguan edo azokan), eta horrek esan nahi du auzotasunaren eskaera gainditzen dela. Alquezarko testuak duen eboluzio-maila handiagoarekin –bistakoa diferentzia hauetan– bat dator idazketa; izan ere, armei buruzko enuntziatu xehatua ez du jasotzen, intenzionalitatearen esamoldean inplizituki baitago, hurbiltasun testualeko balizko erlazioa gorabehera, zeina oso zaila baita zehaztea beste konparazio-elementurik egon ezean. Duelu judizialari buruzko araua Asingo foruan soilik dago jasota, eta aldaerak ditu Jakakoaren formulazioaren aldean, ez baititu inguruabarrak kontuan hartzen eta prozedura judizialari buruzko irudi zabalago bat eskaintzen baitu; izan ere, burdina goriarren froga debekatzen du eta baliozkotasuna ematen dio zin egiteari. Desberdintasun horiei, logikoki, enuntziatu anitzak dagozkie.

Kasu berberetan Jakakoarekiko planteamendu desberdina duten Aragoiko testuetako hiru arauetatik bi Alquezar eta Asingo foruetan daude, eta hirugarrena, azken horretan soilik. Errotei buruzko arauak (§ 21), zeinak haien gaineko monopolioari uko egitea baitakar hiru foruetan, planteamendu desberdinak ditu; izan ere, Jakako testua ehotze-askatasuna ezartzera zuzenduta dago, baina Alquezarkoan eta Asingoan erregeak bizilagunei errotaren jabetza askea aitortzen die. Transmisio testualari dagokionez, adierazgarriagoak dira beste bi xedapenak; izan ere, planteamenduen arteko desberdintasuna formulazioaren aldaketa gradualaren isla da. Haietan lehenengoak, giza hilketaren penalizazioari buruzkoak (§ 14), Jakako testuan zigorraren zenbatekoak ezartzen ditu soilik; baina ez da hori gertatzen Alquezarkoan, non horrez gain hilketaren egilearen erantzukizunaren muga sartzen baitu, eta, era berean, soluzioan espetxe-zigorra eta hiltzailearen ondasunen konfiskazioa xedatzen ditu, isuna ordaintzeko kautela-neurri gisa. Asingo foruak, berriz, honako hau bakarrik xedatzen du gai horri dagokionez: hilketagatik erantzukizunaz salbuesten ditu biztanleak, hilketa burgutik kanpo gertatzen den kasuetarako. Planteamenduen gradazio horri dagokio bi testuen perfekzio formalik handiena; horren era-

kusgarri da ekintza zigorgarria *giza hilketa* terminoarekin tipifikatzea. Antzeko zerbait gertatzen da *caloña* edo isunak jasotzeari buruzko arauarekin (§ 18), baina haren bilakaeraren bi testigantza soilik ditugu. Jakako foruak sei handikiren onespena izatearen baldintza jartzen du erregeak isunak kobratu ahal izateko; Asingoak, ordea, hura aitortuz (agian baldintza berarekin) erregeak erreklamatu ez dituen isunak biztanleek libreki erabil ditzaten xedatzen du. Testu batean eta bestean arauaren planteamenduak duen alde nabaria kontuan izanik, ez dago haien idazketan, aurreikus zitekeen bezala, antzekotasun zantzu txikiena ere.

Halaber, Jakako eta Asingo foruetan soilik heltzen diote armadaren erregulazioari partzialki desberdinak diren soluzioekin; izan ere, Asingoak, bertako bizilagunak eta etorkizuneko biztanleak zazpi urtez salbuetsi eta gero Jakakoan ezarritakora jotzen du¹¹⁶. Aipamen implizitu horrez gain, salbuespen horren Jakako jatorria beste testigantza baten bidez indartzen da, Luesia hiribilduari egiten zaion emakidarekin: *tales fueros quomodo habent illos burzeses de Iacca*. Ez dakigu egiazki zein testutara jotzen zuen: edo salbuespen hori jasotzen zuen Jakako testu batera –gaur egun ezezaguna–, edo, aitzitik, Jakako testutzat hartzen zen hura jasotzen duen Asingo testura¹¹⁷; nolana ere, arauaren izaera pribilegiatua eta arauak hiribildu horiek birpopulatzeko prozesuarekin duen lotura kontuan izanik, pentsatu beharko litzateke hura Jakan aplikatu bazen, egun ezagutzen ditugun testuetan ageri den arau horren formulazioaren aurretik gertatu zela.

5.3. Jakako foruarekiko eta Nafarroako herri eta hirietako foruekiko kasu komunak

Jakako eta Lizarrako foruen arteko lotura alde batera uzten badugu, zeina nabarmena baita jada aztertu den haien testuen antzekotasun literalagatik, Garesko foruko arau bakar batek soilik dauka nolabaiteko elkarrekikotasun bat Jakako estatutuarekin; izan ere, bietan, urtearen eta egunaren preskripziora jotzen da, euren arauen ebazpen-epetzat hartuz: lehenengoan, jabetza bat eskuratzeari dagokionez, eta, bigarrenean, berriz, auzotasuna lortu ahal izateko eskatzen den finkapenaren betekizuna betetzeari dagokionez.

¹¹⁶ Hartan honako hau bakarrik adierazten da: *...et post VII annos completos quod me securratis ad lite campale*; baina pentsa daiteke, Jakan bezala, hiru egunez gastuei aurre egin beharko zitzaizela.

¹¹⁷ Horri dagokionez, komeni da gogoraraztea bi emakiden daten arteko hurbiltasuna: Luesiakoa 1154an izan zen, eta Antso VI.aren Zangozako foruaren berrespenean, 1158an (cfr. *supra* 77. oharra).

5.4. Jakako foruan jasota ez dauden Nafarroako eta Aragoiko foruekiko kasu komunak

Errubrika honen pean kokatzen diren elkarrekikotasunek irismen txikia dute testuetan, oro har; izan ere, haietako lauri eta hiruri eragiten diete soilik, eta inoiz ez dira berberak.

Finkapenaren lekuari emandako eskubideei erregearen babesa bermatzen dien araua (§ 9) Zangozako burgu berriko eta Garesko foruetan dago jasota, ia formulazio berarekin, non 60 soldatako isunaz zigortzen baita bahia emandako mugapeetan. Zigor hori bera, errege-hiran sartuz larriagotua, ezartzen du Erriberrikoak antzeko kasu baterako, baina irismen orokorrarekin dago formulatua; izan ere, hiribilduko biztanle baten aurka egindako atentatu-ekintza oro hartzen du kontuan. Batzuen eta besteen artean kokaturik, Ainsako foruak, non haiekiko nolabaiteko paralelismo formala baitago, antzeko esanahiarekin aipatzen ditu mugapeei buruzko eskubideak, baina kaltea zein zigorra zehaztu gabe.

Foru-berdintasunari buruzko araua (§ 5) ere testu nafarretan ageri da gehien, planteamenduan xehetasun-diferentziak dituelarik; izan ere, derrigortasuna adierazten da San Zerningo burguren foruaren formulazioan, bertan ezartzen ziren biztanleei burguko zuzenbidearen pean jartzeari dagokionez; Pueyo de Pintanoko eta Iriberrikoetako enuntziatuetan, ordea, haien izaera pribilegiatua azpimarratzen da, eta biak datoz bat zuzenbide horren irismen pertsonala eta ez-tokikoa nabarmentzeko orduan. Kointzidentzia horrez harago, haien formulazioko ezerk ez garamatza pentsatzera bi testuen arteko lotura estuagorik egon daitekeenik, biek ala biek aldeak erakusten baitituzte euren planteamenduetan; izan ere, lehenengoan, biztanle batek errege-herriko beste lur batzuetan izan ditzakeen jabetzei dagokienez egiten du, zeinak, horrela, *liberas et franchas a fuero de Jaca* izango baitira. Iriberrikoan, berriz, Iruñeko testuaren literaltasunetik gertu, komunitatean onartutako eklesiastikoak, infantzoiak eta biztanle nafarrak aipatzen ditu zehazki: haiek tokiko forua nahitaez onartu behar zuten, eta horrek berarekin zekarren bertako biztanleen salbuespen-kondizioa edukitzea.

Hamarrenak ordaintzeko betebeharrari buruzko arauan (§ 4), zeina Garesko, Asingo eta Berdungo foruetan jasota baitago, planteamendua eta soluzioa bat izanik, azken bi horien balizko erlazioa agerikoa da, biek apezpikuaren laurdena aipatzen baitute, baina Gareskoak ez du ezer ere aipatzen alderdi horri buruz.

Harrigarria da, leku horien izaera burgesa dela eta, azoka egiteari buruzko arauak Alquezarko (§ 5), San Zerningo eta Berdungo foruetan soilik agertzea. Testu nafarrean arau horren enuntziatua Aragoikoetatik independentea dela dirudi; izan ere, azoka egitea onartuta, azoka egiteko lekua aipatzen du soilik. Aragoikoetan, berriz, unean uneko erreferentziak behin-behinekotasuna du, eta bat datoz finkatutako egunean (osteguna), baina ez maiztasunean: Berdungo fo-

ruan, testuinguruari erreparatuz, asterokoa dela ondoriozta daiteke, baina Alquezarkoan, berriz, halabeharrez hamabost egunean behin egitekoa da. Egun hori finkatzeko arrazoiak Berdungo foruak ematen du; Jakako azokaren lehentasuna adierazten du, astearteetan egiten baitzen, eta hori zinez da interesgarria; izan ere, erakusten du Jakak onartutako lehentasuna zuela bideko gainerako herri eta hirien aurrean, behintzat alderdi zehatz horri dagokionez, eta hori guztia ofizialki haren existentzia aitortu baino lehen¹¹⁸.

5.5. Aragoiko foruekiko kasu komunak

Alquezarko eta Berdungo foruen arteko lotura estua, arestiko arauan agerikoa dena, are nabarmenagoa egiten da; izan ere, bi foru horietan eta horietan soilik ageri da beste arau bat (§ 5), zeinaren bidez erregeak bere babesaren xede berezi egiten baititu azokara doazen oinezkoak, eta isun handia (mila soldata) ezartzen die modu batean edo bestean haiek erasotzen dituztenei joan-etorriak irauten duen denboran (Alquezarkoan hiru egunetan zenbatesten da). Trafiko komertziala bermatze aldera egindako xedapen hori, halaber, Petri II.ak ere adierazten du, positiboki formulatuz, Jakari azoka egiteko eskubidea ematen diotanean, eta, horrenbestez, Aragoiko hiri eta herrien artean dagoen lotura normatibo estua agerian geratzen da.

Azkenik, Berdungo eta Pueyo de Pintanoko foruen arteko elkarrekotasunak, ganadu-barrutien erregulazioari buruzkoak, ez dakar berarekin kointzidentzia normatiborik, baina adierazten du eskualdean abeltzaintza-jarduna zegoela, batik bat ohituraren bidez gobernatzen zena, eta Berdungo arauak dioenaren arabera epaitu behar bada, Aragoiko printzipio hau lehenesten zen: *tortum per tortum*¹¹⁹.

IV. JAKAKO ZUZENBIDEAREN ERATZE-PROZESUA

Hain analisi xeheak hainbat emaitza erabilgarri dakartza Jakako dokumentu foralen kritikatik eratorritako hutsuneak betetzeko, eta, halaber, ahal den neurrian, haren eratze-prozesua berreraikitzeke, esku artean ditugun tresnek ahalbidetzen duten uneraino behintzat.

Orain arte, kritika faltagatik, ikuspegi bat mantendu da: testu bakar bat oso hedatuta zegoen, baina, hala ere, hura jaso zuten lekuetatik bakarrean gauza-

¹¹⁸ Jakan azoka asteartean egitea, astero, Petri II.ak 1197an amandako pribilegiotzat ageri da (cfr. *supra* 14. oharra). Lizarrako foruak azoka egiteari buruzko araurik ez badu ere, hango zenbait xedapenek adierazten dute han ere azoka ostegunetan egiten zela (II, 59.1 eta 62.4)

¹¹⁹ Vid. LALINDE, J., *Los fueros, op. cit.*, 30. or.

tu zen, eta, gainera, guztiz osatu gabe. Horren aurrean, kritika testualak ikuspegi dinamiko bat erakusten du, eratze-prozesu bat finkatuz, non, gutxienez, segidako bi fase bereizi baitaitezke.

Lehen fasea bat dator Antso Ramiritzen ekimenarekin, zeinaren bidez ordura arte bere mendeko lurretan finkatutako herri eta hiriei bere berariazko aitortza eman nahi baitzuen, eta, era berean, emakida onuragarri baten bidez pribilegiatuz, haiek ugaritzea lortzen zuen. Hori dela eta, Zangoza eta Lizarra hiribildu nafarrek eta Jakak –lehenek jatorrian dute lotura, eta azken horrek, berriz, Donejakue Bidetik eratorritako prozesu birpopulatzailan– erregearen arreta izan zuten, eta bakoitzak bere foru-gutuna jaso zuen. Foru-gutun horiek, diferentziaren bat gorabehera, finkatzeko baldintzak ezartzera zuzendutako arau berberak izango zituzten. Espazioari dagokionez, mugapeak ezartzen dira (salbu eta, Jakan gertatu izan zitekeen bezala, haiek lehenagotik aitortuta bazeuden), bai eta bizilagunen komunitateak haiez baliatzeko eskubideak ere. Era berean, banako eta familia-talde bakoitzari aipatutako mugapeen barruan laboratzeko lurak libreki eskuratzeko eskubidea aitortzen zaie, betiere haien aukeren arabera. Horrez gain, hiribildu nafarretan erregeak berariaz adierazten du mugapearen gainean bere babesak duen benetako irismena, eta 60 soldatuko zigorra ezartzen du hango biztanleen aurka bahia erabiltzen bada¹²⁰. Foru-berdintasuna bermatuta ageri da, infantzoiei eta, agian, kleroari ez baitzaie finkatzeko aukerarik ematen. Bestalde, askatasun pertsonalak eta ondare-askatasunak badute beren adierazpen normatiboa; izan ere, frankizia-kondizioa aitortu zitzaizen errege-herrian eskuratu zitezkeen jabetza guztiei. Hiru hiribilduentzako pribilegio-baldintzen oinarri komun hori zenbait salbuespenekin osatzen da. Salbuespen horiek, testuetan oinarrituz, ez lirateke berberak izango, baizik eta, emakidaren unearen eta tokiko inguruabarren arabera, egokienak zirela irizten zirenak. Beraz, Zangozako biztanleak salbuetsita zeuden erresumako hiribilduetan eta azoketan lezda ordaintzeaz; Lizarrakoak eta Jakakoak, berriz, erregeari armez laguntzeaz salbuetsita zeuden zazpi urtez¹²¹. Zangozako foruak eta Jakakoak

¹²⁰ Betiere, Lizarrako jatorrizko foruaren –egun ezezaguna– eta Gareskoan jasotako xedapenen artean dagoen identitate normatibo gertagarritik eta idazketari dagokionetik abiatuta.

¹²¹ Hala ere, nahiz eta ezagutzen diren Jakako foruan zein Lizarrakoan ez dagoen salbuespen hori jasota, ez da doako baieztapen bat. Antso Ramiritzen foruaren bi bertsioretan jasotako araua formulatu baino lehen salbuespen hori Jakan indarrean egon izana Jakako forua Luesiari emateagatik ondorioztatzen da (vid. *supra* III). Lizarrari dagokionez, hango foruan Jakako testuan ageri den bezala formulatuta dago arau hori (I, 1.1); nolahi ere, amaierako errubriketako batek –*De foro* (III, 69/72)– arau hori berresteak, jarraian, puntualki, hura ez betetzea justifikatzen duen arau multzo bat zehaztuz, aditzera eman dezake auzo-agintarien saiakera bat izan zela, lehen salbuespen hori oinarritzat hartuta egiten zen jardun oker bat zuzentzeko. Bestalde, arau hori Asingo foruan jasotakoan artean egoteak ez du esan nahi Zangozan indarrean egongo zenik; izan ere, foru horren eta Aragoiko beste hiribildu batzuei egindako

eta Lizarrakoak edukian duten diferentziak, baina, halaber, testu nafarren artean bahiari dagokion zigorra preskribatzeko unean ageri diren kointzidentziek, eta, Jakakoarekin alderatuz, haien arteko hurbiltasun literalak pentsarazten digute emakida ez zela une berean egin leku guztietan, baizik eta sekuentzia jarraitu batean. Zangozari legokio denbora-lehentasuna *iter* kronologiko horretan; izan ere, hango lehen finkapenari ematen zaion lezda ordaintzeko salbuespena kontuan harturik, litekeena da haren edukia Antso erregearen beste foru-gutunen antzekoa izatea, nahiz eta armadari buruzko araua zeharo salbuespenezkoa izan¹²². Bestalde, Zangozako eta Garesko foruek beren artean duten hurbiltasun literal handiagoak garamatzate Lizarrako emakida bigarren leku batean jartzera, Jakakoarekin amaitzeko, eta, hain justu, hori bat dator egintza honekin: han hasten da erregearen lehen ekimen horrek sorrarazitako zuzenbide hori intentsitate handiagoz garatzen, prozesu honen bigarren faseari bide emanez.

Bigarren fase hori, kritika testualaren emaitzak kontuan hartuta, amaitzen da haien askatasunaren bermea ziren baldintza batzuen pean ingurune jakin batean ezarritako pertsonen elkarbizitzaren ondorioz sortutako arau batzuk formulatuz eta idatzirik jarritz. Sorkuntza normatiboaren prozesua hiribildu horietako bakoitzean egin zen, baina, itxuraz, idazketa-prozesua soilik Jakan egin zen, nolabaiteko intentsitatea emanez; izan ere, zenbait iruzkin normatibotan zehaztu zen, denbora-lapsus ez oso luze batean. 1122an, Lizarrako forua Garesi eman zionean, Alfontso I.ak biztanleen finkapenari buruzko baldintzak zehaztu zituen soilik, eta planteatu zitezkeen beste gaietarako –*causas et fazriendas*–, aipamen nahiko lausoetara jo zuen (*tales fueros et tales usaticos vel consuetudines*, bertako biztanleena). Horrek ez du esan nahi hutsune normatibo bat zegoenik, baina bai adierazten du tresna baten gabezia, non zuzenbide bizi hori xedapen zehatz batzuen bidez zehaztuta egongo zen Lizarran; baina, halaber, Jakan ere gabezia hori bazegoela adierazten du, bestela, Alfontso erregeak hara joko baitzuen, urte batzuk geroago Ainsaren birpopulaketan eta Alquezarko burgu berrian egin zuen gisara. Lan hori nork egin zuen eta nola egin zuen jakiteko erantzunik apenas dago testuetan. Biztanleen finkapenari buruzkoak ez diren arauen edukia ikusita, egileak tokiko ohiturak eta praktika judiziala ezagutzen zuten pertsonak zirela ondoriozta daiteke soilik. Jarduteko moduari dagokionez, kritika testualetik zenbait zantzu atera daitezke; izan ere, handik eratorritako edukiari eta formari buruzko elkarrekikotasunek hainbat idazketa egotea eskatzen dute:

emakiden arteko lotura testual nabarmenak kontuan hartuz gero, ondoriozta daiteke hori izan zitekeela arau hori bere foruan jasotzeko bidea.

¹²² Lezdaren gaineko salbuespena duten Antso Ramiritzen foruei buruz, vid. *supra* 114. oharra. Aitzitik, testu horietako zenbaitetan (Arguedas, Uxue, Monzón eta Castellar) jasota dagoen armadari buruzko araua, lehen aipatutako Jakako foruan ezarritakoa da.

Lehena, Antso Ramiritzen dokumentuan oinarrituta egingo zen, haren garapen gisa, izaera prozesal eta penaleko arau multzo bat gehituz –epaiketak hiribilduan egitea, duelua froga judizial gisa bazterzea, giza hilketaren penalizazioa, armak erasotzeko xedearekin erabiltzearen penalizazioa, eta ezarritako isunen xedapena–, eta izaera pribilegiatuko besteren bat gehituz, hala nola ehotzeko askatasuna, eta, orobat, biztanle berrien ohituratik eratorritakoak gehituz, hala nola urtearen eta egunaren preskripzioa. Seguru asko hori izango zen Jakako zuzenbidearen testua hango forua Ainsa eta Iruñeari eman zitzaizkion; izan ere, lehenengoan epaiketak egiteari buruzko araua jasota badago ere, San Zerningoan adierazgarria da aipamen orokorra egiten dela, Garesen erabiltzen den formularekin alderatuz, han egiten den bezala (*vestras fazieldas*, baina era berean a *vestros iudizios*). Bestalde, Ainsako foruan lezda ordaintzeko salbuespenaren klausula egotea eta, oro har, Zangozakoarekiko eta Gareskoarekiko duen hurbiltasun literala, eta, halaber, Iruñekoan Jakakora jotzea (*tales fueros... quomodo fuerunt populatos illos populos de Jaka*) xehetasun argigarriak dira testu honen eta Antso Ramiritzen lehen emakidaren arteko harreman estua ikusteko, bai eta Zangozakoarekin eta Lizarrakoarekin duen antzekotasuna ikusteko ere.

Testu hori, halaber, berrikusi egin zen, eta berrikuspen horretatik abiatuta beste bi iruzkin egin ziren, erabateko independentziaz eta, seguru asko, leku eta une desberdinetan. Badirudi lehen iruzkina, nominalki eta edukiari dagokionez Jakari lotua, hango zuzenbidea beste komunitate batzuei egokitzeko prozesuan egin zela. Haren ezaugarria da zenbait arauk, izaera penal eta prozesalekoek, edukiaren eta formaren garapen handiagoa erakustea, eta, orobat, beste zenbait arau gehitzea, zeinak gai jakin batzuetan Jakan erabiltzen ziren moduak eta praktikak bere egitea zekarten, hala nola azoka egitea eta babestea eta elizari zergak ordaintzeko betebeharra, hamarrenaren eta apezpiku-laurdenaren bidez. Testu hori jaso zen Alquezarko burgu berrian eta Asinen, non, agian, Antso Ramiritzek Zangozako burgu berriari emandako gutunarekin bateratu edo egokitzeagatik, hiribildu horretako berezko foru gisa aurkezten baita. Era berean, Alquezarren bildutako bertsioari jarraikiz, Erramun Berengerrek eta Alfontso II.ak Berduni eta Pueyo de Pintanori egindako emakidetan erabili zuten. Bigarren iruzkina Jakan egin zen; beharbada, Ramiro II.aren erreinaldian. Ez zuen berehalako garrantzia izan bere mugetatik kanpo, baina erabakigarria izan zen; izan ere, Jakako zuzenbidea ia betiko finkatu ez ezik, hedapen-maila handiagoak lortu zituen Lizarran berezko forutzat hartu zenean, eta, halaber, azken horren berezko emakida izan ala ez edo jatorrizko izendapenarekin, Donostiara eta Gipuzkoako beste hiribildu batzuetara hedatu zen. Edukiari eta formari dagokionez, aurrez zegoen Jakako testuaren berregite garrantzitsua izan zen; izan ere, haren gainean egin zen –Antso erregeari egozten jarraituz–, lehenik, haren arauak inguruabar

berrietara egokitzea, Antso Ramiritzen pribilegioan zeuden zenbait klausula baztertuz (mugapeen emakida, orubeaz jabetzea, infantzoiak finkatzeko debekua) eta beste zenbaiten formulazioa aldatuz, bai edukiari dagokionez, hala nola armadan zerbitzu emateaz salbuesteari buruzkoan, zeina orain derrigorrezkoa egiten baita, bai idazketari dagokionez –idazketa zehatzagoa egiten da–, abstrakzio- eta orokortasun-efektu handiagoa lortuz. Bigarrenik, arau-educia handitzen da, prozesuari dagozkion arauekin –fidantzak ematea– eta, neurri handiago batean, arau penalekin –estuproa eta bortxaketa, askotariko erasoak eta etxeko bakea haustea– eta auzoko gaiekin lotutako arauekin –neurriak faltsutzea–.

Ez dakigu testu hori errege-monjeari berresteko aurkeztu zitzaion, edo, aitzitik, haren jardun baten –beste pribilegio batzuk emateaz gain, hiribilduko foruak berrestea– *conscriptioa* egiteko oinarriztat erabiltzeko balio zuelako, baina argi dagoena da horren ondorioz behin betiko finkatu zela testu hori. Ordutik, testuak bere ibilbide propioa egin zuen eta gureganaino iritsi da, beste zenbait dokumenturekin batera, transmisiozko eta berregite testualeko prozesu baten bidez; eta, hain zuzen, azterlan honen abiapuntu izan den haren kritika diplomatikoak horixe bera seinalatzen du.

Ramiro II.aren testu horrekin, itxuraz, Jakako zuzenbidearen eratze-prozesuaren lehen zikloa amaitzen da; eta zuzenbide hori, hain zuzen, berreraikitzen saiatu da, existitzen diren haren hedapenari buruzko testuek hori ahalbidetu duten neurrian. Nolanahi ere, hori askoz ere zabalagoa den prozesu bat argitze-ko lehen urratsa baino ez da. Prozesu horrek baditu zenbait alderdi ezezagun (batzuk hemen adierazi dira), eta haiek argitzeko, zalantzarik gabe, azterketa sakonago bat egin behar da, gure oraingo helburuaren muga kronologiko eta espazialak zinez gaindituko dituen.

V. BIBLIOGRAFIA

BANÚS Y AGUIRRE, José Luis, *El fuero de San Sebastián*, Zarautz: Donostia-ko Udala, 1963.

BARRERO, Ana M^a, El fuero de Carmona. *Actas del I Congreso de Historia de Carmona. Edad Media. Congreso conmemorativo del 750 aniversario de la conquista de la ciudad de Carmona por Fernando III. 1247. Carmona (Sevilla), 22 al 25 d septiembre de 1997*, Sevilla: Centro de Estudios Ramón Areces, 1998, 387-413 or.

-El proceso de formación del derecho local medieval a través de sus textos: Los fueros castellano-leoneses. DE LA IGLESIA DUARTE, José Ignacio (zuz.), *I Semana de Estudios medievales. Nájera 1990*, Logroño: Instituto de Estudios Riojanos, 2001, 91-131 or.

- Las redacciones navarras del fuero de Logroño, *Príncipe de Viana*, 53. bol., 196. zk. (1992), 409-428 or.
- BARRERO GARCÍA, Ana M^a eta ALONSO MARTÍN, M^a Luz, Textos de derecho local español en la Edad Media. *Catálogo de fueros y costums municipales*, Madril: CSIC, 1989.
- CANELLAS LÓPEZ, Ángel, La cancillería real en el reino de Aragón (1035-1134). *Folia Budapestina*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, CSIC, 1983, 23-46 or.
- La colección diplomática de Sancho Ramírez*, Zaragoza: Real Sociedad Económica Aragonesa de los Amigos del País, 1993.
- DU CANGE, *Glossarium Mediae latinitatis et infimae Latinitatis*, Niort, Favre, 1883-1887.
- GARCÍA LARRAGUETA, Santos eta OSTOLAZA ELIZONDO, Isabel, Estudios de diplomática sobre fuentes de la época de Sancho el Sabio. *Vitoria en la Edad Media. Actas del I Congreso de estudios históricos celebrado en esta ciudad del 21 al 26 de septiembre de 1981 en conmemoración del 800 aniversario de su fundación*, Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 1982, 115-215 or.
- GOURON, André, Autour de Placentin à Montpellier: Maître Gui et Pierre de Cardona, *Studia Gratiana*, 19 (1976), 337-354 or.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán (koord.), *Documentación histórica sobre la villa de Tiebas*, Tebas: Tebasko kontzejua, 1999.
- LACARRA, José M^a, Notas para la formación de las familias de fueros navarros, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 10 (1933), 203-272 or.
- Desarrollo urbano de Jaca en la Edad Media, *Estudios de la Edad Media de la Corona de Aragón* 4 (1951), 139-155 or.
- Estudios de Edad Media de la Corona de Aragón, 3 (1947-1948), (461-73 or.) eta Ainsa, (*Documentos para el estudio de la reconquista y repoblación del valle del Ebro*, (1-319 zk.), Zaragoza: Anúbar, 1982.
- LACARRA, José M^a eta MARTÍN DUQUE, Ángel J., *Fueros de Navarra I. Fueros derivados de Jaca: 1. Estella-San Sebastián*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1969.
- Fueros de Navarra I. Fueros derivados de Jaca 2. Pamplona*, Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, 1975.
- LALINDE ABADÍA, Jesús, *Los fueros de Aragón*, Zaragoza: Librería General, 1976.
- LEDESMA RUBIO, María Luisa, *Cartas de población del Reino de Aragón en los siglos medievales*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1991.

MARTÍN DUQUE, Ángel J., *Documentación medieval de Leire (siglos XI a XII)*, Iruñea: Vianako Printzea Erakundea, 1983.

-El fuero de San Sebastián. Tradición manuscrita y edición crítica. *Congreso El fuero de San Sebastián y su época*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1982, 3-26 or.

-La fundación del primer burgo navarro: Estella, *Príncipe de Viana*, 51. bol., 190 zk. (1990), 317-327 or.

-Navarra y Aragón. *Historia de España de Menéndez Pidal dirigida por J. M^a. Jover Zamora, IX. La Reconquista y el proceso de diferenciación política (1035-1217)*, Madril: Espasa-Calpe, 1998.

-Sancho VI de Navarra y el fuero de Vitoria. *Vitoria en la Edad Media. Actas del I Congreso de estudios históricos celebrado en esta ciudad del 21 al 26 de septiembre de 1981 en conmemoración del 800 aniversario de su fundación*, Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 1982, 283-295 or.

MOLHO, Mauricio, Difusión del derecho pirenaico (Fuero de Jaca) en el reino de Aragón, *Boletín de la Real Academia de Buenas Letras de Barcelona*, 28 (1959-1960), 265-352 or.

-*El fuero de Jaca. Edición crítica*, Zaragoza: Instituto de estudios pirenaicos, 1964.

MOR, Carlo Guido, A l'origine de l'école de Montpellier: Rogerius ou Placentinus. *Recueil de mémoires et travaux. Société d'Histoire du Droit et des Institutions des Anciens Pays de Droit Ecrit*, 6 (1967), 145-155 or.

MORALES ARRIZABALAGA, Jesús, *Privilegios altomedievales: El fuero de Jaca (c. 1076)*, Zaragoza: Zaragozako Unibertsitatea, 1997.

MUÑOZ Y ROMERO, Tomás, *Colección de fueros municipales y cartas pueblas de los reinos de Castilla, León, Navarra y Aragón*, Madril: José María Alonsoren inprimategia, 1847.

PAVÓN BENITO, Julia, Fuero de Jaca y fuero de Estella. Observaciones críticas. *XV Congreso de Historia de la Corona de Aragón. Actas. Tomo III. Jaca en la Corona de Aragón (siglos XII-XVIII)*, Zaragoza: Institución Fernando el Católico, 1994, 343-353 or.

RAMOS LOSCERTALES, José M^a, Textos para el estudio del derecho aragonés en la Edad Media, *Anuario de Historia del Derecho Español*, 1 (1924), 397-416 or.

-*Fuero de Jaca (última redacción)*, Bartzelona: Bartzelonako Unibertsitatea, 1927.

SANCHEZ BELDA, Ismael (ed.), *Chronica Adefonsi Imperatoris*, Jaka aipatze-ko civitas regia erabiltzen du, Madril: CSIC, 1950.

- SESMA MUÑOZ, José Ángel, El camino de Santiago en Aragón. *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela y San Salvador de Oviedo en la Edad Media, Actas del I Congreso Internacional celebrado en Oviedo del 3 al 7 de diciembre de 1990*, Oviedo: Asturiasko Printzerriaren Gobernua, 1993, 87-101 or.
- UBIETO, Agustín, *Los «tenentes» en Navarra y Aragón en los siglos XI y XII*, Valentzia: Anúbar, 1973.
- UBIETO, Antonio, *Crónica de los Estados Peninsulares (Texto del siglo XIV)*, Granada: Granadako Unibertsitatea, 1955.
- Documentos de Ramiro II de Aragón*, Zaragoza: Anúbar, 1988.
- Jaca: Documentos municipales, 971-1269*, Valentzia: Cronista Almela y Vives, 1975.
- VÁZQUEZ DE PARGA, Luis, LACARRA, José María eta URÍA, Juan, *Las peregrinaciones a Santiago de Compostela*. III, Madril: CSIC, 1949.
- YAGÜE FERRER, M^a Isabel, *Jaca: Documentos municipales (971-1324). Introducción y concordancia lematizada*, Zaragoza: Zaragozako Unibertsitatea, 1995.